

ZIKA BIRUSAREN ABEZEA: Alarma guztiak piztuta gaixotasunaren zirrikituak ikertzen dituzten bitartean > 8

KOADERNOA

Angela Davis, konpromisoa haragitua LAURA MINTEGI > 21

2016ko otsailaren 6a | X. urtea • 454. zbk.
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



NAFAR HEZKUNTZAREN KORAPILOA

EZTABAIDA POLITIKOAREN ERDIAN KOKATU DA NAFARROAKO HEZKUNTZA SISTEMA PUBLIKOA AZKENALDIAN. ALDAKETAREN GOBERNUA SOSTENGATZEN DUTEN ALDERDIEN ARTEAN ERE PITZADURAK SORTU DIRA ETA OPOSIZIOAK GAIA

BALIATU DU. > 12 Oíartso LOS ARCOS | ARGAZKI PRESS

Afrikako herriak, Hagako

auzitegia uzteko prest 04

Mundu mailako larrialdi egoera,

Zika birusaren erruz 08

Nafar hezkuntzaren korapiloa 12

Itsaso bat emakume 17

Elkarrizketa: Aingeru Mayor,

sexologoa eta Chrysallis elkarteko


lehendakaria 22

ENEEK: Egin txotx ekologikoari 26

Infraganti: Alex Mendizabal, ACE-

Eromako Euskal Etxeko kidea 28

Behatxulotik 31



SINADURAK:

03 **Gorka Elejabarrieta:** Bidea eta oinetakoak

10 **Saioa Aginako:** Amaiera zoriontsuak

11 **Ramon Sola:** Ezer ez egitearen joera eta edozer egitearen artea

16 **Dani Fano**

20 **Beñat Gaztelumendi:** Iparraldeko estazioa

21 **Laura Mintegi:** Angela Davis, konpromisoa haragitua

27 **Antton Izagirre:** Atzerako ispilua

27 **Andoni Egia:** #KorrikaPrekarioa

30 **Maria Gonzalez Gorosarri:** Isilpeko heriotza zigorra



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILAK
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDEZAK) DIRUZ LAGUNDUA



Gipuzkoa
BERRIA

{ datorrena } **Gorka Elejabarrieta**

Bidea eta oinetakoak

Aurreko asteburuan Utrecht egon nintzen, New World Summit nazioarteko erakundeak antolaturiko konferentzian. Rojavako egoera eta kurdien estaturik gabeko demokrazia –eta horri loturik proposatzen duten eredu konfederala– abiapuntu harturik, Irlanda, Palestina, Islandia, Eskozia, Herrialde Katalanak, Filipinak, Euskal Herria eta beste herrialde askotako ikuspegi eta proiektuak aztertu genituen. Ariketa interesgarria eta aberasgarria, dudarik gabe. Nahiz gauza jakina izan, azpimarratu behar da ez daudela bi egoera berdin, bi prozesu berdin, eta, ondorioz, ez dagoela erantzun bakar bat errealitate ezberdin horiei guztiei erantzuteko. Prozesu bakoitzak bere bide propioa erabaki eta egin behar du. Ingeleseztan esaten den bezala, ez dago “one size fits all” konponbiderik.

Estatuen jarrera eta izaerak ere ezberdinak dira, demokratikoagoak edo irekiagoak diren estatuetatik batere demokratikoak ez direnetara; beltz eta zurien artean badi-ra grisak ere. Izaerok ez dira estankoak, zenbait kasutan moldatu, aldatu egiten dira. Nazio askapen mugimenduak ere askotarikoak dira; ez daude bi mugimendu berdin. Hori bai, eta kasuak banan-banan aztertzen jarrita, estatu guztiek helburu berdintsuak dauzkate: *statu quo*-a eta haien lurralde batasuna mantentzea. Era berean, nazio askapen mugimenduek ere antzeko helburuak dituzte, askatasuna, berdintasuna eta justizia sozialari oso loturikoak. Estatuen jarrera, izaera, historia eta momentuko egoeraren arabera, nazio askapen mugimenduak haien taktika eta epe ertaineko helburuak moldatzen doaz.

Hala ere, iruditzen zait, orokorrean, nazio askapen mugimenduen borroken eskemetan antzeko progresio bat ematen ari dela. Eskema klasiko batetik –konfrontazioak negoziazioa eta akordioa ekarriko zituela eta akordioak, hau da, sinaturiko dokumentu horrek, izan genitzakeen aldarrikapenei erantzuna eta konponbidea emango zizkiela zioena–, beste eskema batera pasa garela –zeinetan jada ez den bilateralitasunean sinesten–. Bide berri horretan helburu eta aldarrikapen horien aldeko gehiengoak eraikitzeari ematen zaio bereziki indarra. Nork bere he-

rrian, alde askotariko prozesu parte hartzaile, plural, eraikitzaile eta akumulatzaileak martxan jarritz, estatuen jarrera noiz aldatuko den itxaron gabe. Prozesu horiek, Eskoziako adibideak erakutsi digun bezala, estatuen jarrera aldatzea ere lor dezakete, akumulazioa eta parte hartzea akordioen eta konponbideen motor berria izatera helduz. Eta Estatuaren jarrera aldatzea lortzen ez badu ere, Katalunia erakusten ari zaigun bezala, independentzia bururaino eramateko balio dezake.

Gure egoera Eskozia eta Kataluniarekin konparatzen dugu maiz, eta herriotako bideak jarraitu beharko genituzkeela aldarrikatzen dugu askotan, baina ezin dugu ahaztu gureak Irlandarekin eta antzeko herrialdeekin ere parekotasun handiak dituela. Horri loturik doa bigarren elementu nagusia: konfrontazio armatua izan duten edo oraindik daukaten kasu gehienetan, nazio askapen mugimenduetako erakunde armatu gehienek konponbide

Nazio askapenerako mugimenduen eskemak aldatzen ari dira. Eskema klasikotik –konfrontazioa, negoziazioa, akordioa–, aldebakarreko eskema batera bitarteko trantsizioa egiten ari dira

prozesu elkarrizketatu eta negoziatuen aldeko apustu garbia egin dute. ETA ez zen lehenengoa izan, ezta azkena ere, bere ondoren beste horrenbeste etorri baitira. Badira egoera berri horren arabera haien jarrera moldatu duten estatuak, Erresuma Batua, Kolonbia, Burma, eta abar. Baita batere aldatu ez dutenak ere, espainiar Estatua bera edo Turkia, batzuk aipatzearren. Garrantzitsuena, nire ustez, momentua iritsita behar diren erabakiak hartzea da; eta zailena, behin erabakia hartuta, zure mugimendua eta herria bera egoera berri horrek eskatzen dituen praktika politiko berrietara egokitzea.

Horiek dira gako nagusiak nire ustez, eskema edo bide orri berriak, aurrekoak zaharkituta eta baliorik gabe geratu direlako. Eta bide orri berri horiek behar bezala ibiltzeko oinetako aproposak behar dira, hau da, praktika eta diskurtso politiko egokiak. •

AFRIKAR BATASUNA

«Atzerritarren interesen aldeko justizia» delako, Hagako auzitegia uzteko prest

ICC Nazioarteko Zigor Auzitegia uzteko urratsak egiten hasia da Afrika. Uhuru Kenyatta Kenya-ko presidenteak egin zuen Erromako Estatu-tua uzteko bide orria diseinatze-ko proposamena eta Afrikar Batasunak onartu egin zuen, aurreko asteburuan Addis Abeba Etiopiako hiriburuan eginda-ko gailurrean.

«Afrikarron burujabetasuna-ren, segurtasunaren eta duintasunaren kaltetan bere bidea utzi duen ibilgailuaren atzetik ezin dugu jarraitu», esplikatu zuen, oso era grafikoan, Kenyattak berak. Aspalditik zetozen liskarrak dibortzio bihurtzea erabaki dute afrikarrek, eta ez da harritzekoa, propio kontinente horretako agintarien aurka aritzeko pentsatuta dagoela baitirudi Erromako Estatuak eraturako auzitegiak.

Laurent Gbagbo Boli Kostako presidente ohiaren aurkako epaiketak ICCren kontrako mezuak indartu berriak zituen Addis Abebako gailurra hasi aurretik. Urtarrilaren 28an hasi zen, Hagan. Epaietaren harira, begirale askok gogorarazi dute auzitegi horrek afrikarrak baino ez dituela epaitzen eta sistema alternatiboren bat eratzeko deialdiak egin dira.

2010EKO HAUTESKUNDEAK

Gbagbo da ICCK epaitzen duen lehen presidente ohiak. Gizateriaren aurkako krimenak egotzi zaizkio: 2010eko hauteskunde- en ondoren, aginteari kosta ahal- kosta eusteko asmoarekin, zibil- en aurkako errepresioa agindu izana leporatzen diote, hilketak eta desagerrarazteak barne. Berak erruduna ez dela deklaratu du Hagan. Epaietarako lau urteko iraupena izan deza- keela diote adituek.

Gbagborekin batera Hagan epaitzen ari dira Charles Ble Goude Gazteria ministro ohiak ere, ustez gizateriaren aurkako krimenak egin zituzten gazte miliziak antolatzea leporatuta. Berak ere ez dela errudun esan zien epaileei. Simone Gbagbo- ren emaztea ere estraditatzeko eskatu du ICCK, baina Boli Kos-

 POLITIKA / joseangel.oria@gaur8.info

Orain ia hamalau urte sortutako ICC Nazioarteko Zigor Auzitegiak Afrikako buruzagiak baino ez ditu eseri akusatuen aulkian. Orain Laurent Gbagbo Boli Kostako presidente ohiak Hagan epaitzen ari direla-eta, ICCren aurkako mezuak ugaltu egin dira, eta afrikar agintarie- k auzitegia uzteko bide orria diseinatze-ko agindu dute.

tan daukate preso, hoguei urteko kartzela zigorra ezarri ondoren.

Afrikatik bertatik ez diote zile- gitasunik ikusten Hagako auzi- tegiari. Babacar Ba Forum du Justiciable elkarteko presidente- ak Dakar Senegalgo hiriburuan azaldu zion bere haserrea AFP agentziako kazetariari: «Harri- tuta nauka kontu honek; gure herrikideak eramaten dituzte, Afrikako estatuburu ohiak, eta

Nazioarteko Zigor Auzitegiaren eskuetan uzten dituzte. Gu iraintzea da hori, afrikarrok geure legeak betearazteko gaita- sunik ez dugula adieraztea da epaiketa hori, geure seme bat epaitzeko adina baliabide izan- go ez bagenu bezala».

Senegalgo abokatuak garbi dauka badagoela aukera alterna- tibo bat, afrikarren duintasuna bortxatzen ez duena, Gbagbo


Boli Kostako herritarrak telebistari begira Abidjan hiriburuko establezimendu batean, Gbagboren aurkako epaietaren berri ematen ari diren unean.
Sia KAMBOU | AFP

epaitzeko: Afrikar Batasunak eta Senegalgo Estatuak adostuta 1980ko hamarkadan Txaden egin ziren krimenak epaitzeko sortutako CAE Afrikako Ezohiko Ganbera baliatzea. Garai hartan Hiseene Habre, «Afrikako Pino- chet», zen Txadeko presidente. Iazko uztailaren 20an hasi zen bere aurkako epaiketa.

JURISDIKZIO UNIBERTSALA

Afrikak justizia sistema alterna- tibo bat behar duela esaten du- tenentzat Habreraren aurkako prozesua eredugarria da, inpuni- tateari aurre egiteko ezinbes- teko tresna.

Jurisdikzio unibertsalaren printzipioan oinarrituta, konti- nenteko beste herrialde bateko auzitegi baten aurrean kontuak eman behar ditu Senegalen ber- tan atxilotuta daukaten agintari ohiak. Ban Ki-moon NBE Nazio Batuen Erakundeko idazkariak berak Habreraren aurkako epaike- ta 2015eko inpunitatearen aur-



«Gure burujabetasunaren, segurtasunaren eta duintasunaren kaltetan bere bidea utzi duen ibilgailuaren atzetik ezin dugu jarraitu», nabarmendu du Kenyattak berak

kako borrokan sartu zuen, ICCk abian dituen beste prozesu batzuekin batera.

Biktimek justizia apur bat ikus dezaten da helburua, diplomazialari korearraren ustez. «Krimenik ikaragarrien inpunitatearen aurkako borrokan erabateko aldaketaren lekuko da mundua», adierazi zuen urtarri-laren 14an plazaratu zuen me-zuan.

Marcel Mendy CAE auzitegiko eledunak Habreren aurkako epaiketaren hasieran esan zue-nez, bere helburuetako bat zen Afrika bere herritarrek epaitze-ko gauza dela erakustea, «beste batzuek ez dute egingo-eta lan hori», Hagako auzitegia, aipatu gabe bada ere, gogora ekarriz.


CAEk aurrera egin eta ICCren Afrikako alternatiba bihurtzeko asko falta da ordea. Estatuek be-ren oniritzia eman beharko lio-kete horretarako, eta hori ez da oraindik gertatu. Boli Kostak ez du horrelakorik nahi Laurent Gbagbo presidente ohiaren ka-suan, esaterako.

Gainera, Babacar Ba abokatu-a-ren iritziz, ezinbestekoa da he-rrialde ezberdinetako justizia erakundeak indartzea, bestela ezinezko izango baita jurisdik-zio unibertsalaren printzipioa Afrikan bertan ezartzea. Habre-ren aurkako epaiketaren Senega-len egin zena litzateke eredu-a.


ZORTZI KASU, GUZTIAK AFRIKAN

Genozidio krimena, gerra kri-mena eta gizateriaren kontrako krimenak epaitzeko eskumena du Hagako ICC Nazioarteko Zi-gor Auzitegiak. 2002an sortua, geroztik abian jarri dituen iker-keta guztiak Afrikan egindako krimenen ingurukoak dira eta afrikarrak dira akusatuak. Zortzi kasu ageri dira zerrendan: Ken-ya, Boli Kosta, Libia, Sudan, Kon-goko Errepublika Demokratikoa, Afrikako Erdialdeko Errepubli-ka, Uganda eta Mali. Ez da harri-tzekoa batek baino gehiagok esatea auzitegi hori dela konti-nentearen aurkako atzerriko po-tentzien beso judiziala.

Tedros Adhamon Ghebreye-sus Etiopiako Atzerri ministro-ak iazko azaroan esan zuen Ha-gan bertan, ICC auzitegiaren



Gbagbo presidente ohiaren jarraitzaileak, Abidjan Boli Kostako hiriburuan. Sia KAMBOU | AFP



Gbagboren abokatuak, auzitegira sartu aurretik prestatzen. Peter DEJONG | AFP

Afrikan bertan badago teorian beste aukera bat:
Afrikar Batasunak eta Senegalek adostuta
Txadeko krimenak epaitzeko sortu zen
Afrikako Ezohiko Ganbera baliatzea

sorrerak sekulako babesa lortu zuela hasiera batean kontinen-tean, baina gauzak aldatu egin direla eta une honetan afrika-rrek argi diotela dagoeneko ez dela guztien auzitegia.

Fatou Bensouda ICCko fiska-lak uste du auzitegiaren aurka-ko salaketa horiek ez dutela ez hanka ez buru, orain hiru hila-bete esan zuenez. Gambiarrak erantsi du auzitegiak une hone-tan dituen kasu gehienak Afri-kako estatuek eskatuta hasi zire-la. Kenya, Sudan eta Libiako kasuak lirateke hiru salbuespen bakarrak.

AL-BASHIR HEGOAFRIKAN

Omar al-Bashir Sudango presi-dentearen aurkako prozesuak Afrikako agintarien eta Hagako auzitegiaren arteko tentsioa areagotu egin zuen iaz. ICC auzi-tegiak 2009an agindu zuen su-dandarra atxilotzeko, gerra kri-menak, gizateriaren aurkako krimenak eta genozidioa lepora-tuta. Afrikar Batasunak behin baino gehiagotan esan izan du ez duela Omar al-Bashir atxilo-tuko, estatuburu baten immuni-tatea dela-eta.

Tentsioak goia jo zuen ekaina-ren 15ean, Al-Bashirrek Hegoa-frikatik alde egin zuenean, nahiz eta agintaria atxilotzeko agindu bat zegoen.

ICCren aginduari jaramonik egin gabe, sudandarra Johan-nesburgo hirian Afrikar Batasu-nak egin zuen gailurrera joan zen. Immunitate diplomatikoa bazuen ere, presaka eta korrika joan zen Hegoafrikatik, bertako Epaitegi Gorenak atxilotu egin zezakeela-eta.

Hegoafrikak zergatik ez zuen bete Hagako auzitegiak esanda-koa? Begirale batzuek uste dute sudandarra Hegoafrikan egon zen bitartean negoziazio diplo-matikoak egin zirela eta Jacob Zuma presidenteak hartu zuela Al-Bashir ez atxilotzeko eraba-kia. Nahiago izan zuen Afrikako beste estatuburuekin zuen ha-rremanari eustea, Europa zaha-rrean egoitza duen auzitegiare-kiko leialtasuna apurtuta. Bashir Khartum Sudango hiri-burura iristean, Hegoafrikako



Gobernuak adierazi zuen ICC naziorteko auzitegiarekin zituen harremanak bertan behera geratzeko zorian zeudela.

Agintarien arteko nolabaiteko «elkartasun» hori askotan ikusi ahal izan da. Gbagboren aurkako epaiketa dela-eta, esaterako, Ekuatore Gineako telebista publikoak debekatu egin zuen gai horri buruzko informazioa eskaintzea, bi herrialdeen arteko «laguntasunarengatik», AFP agentziak banatutako informazioaren arabera. Herrialde horretako agintariak dira kontinente osoan denbora gehien agintean daramatzatenak eta tirania da nagusi bertan. Ez daude lo lasai egiteko moduan.

Boli Kostako presidente ohiak Addis Abeban izan zuen aliatu-rik onenak ere bere arrazoi propioak ditu ICC nazioarteko auzitegia salatzeko. Gbagbo bera baino lehen, agintean zegoen estatuburu bat jarri zuten auzitegiko akusatuen aulkian: Uhuru Kenyatta Kenyako presidentea. Baina epaiketa ez zen hasi ere egin, Fiskaltzak karguak

erretiratu egin behar izan zituelako. Kenyako agintariei leporatu zitzaizen epaiketa oztopatzeko neurriak hartu izana, baita leku-koak mehatxatzea ere, testigantza ezerosorik eman ez zezaten, jakina.

Kenyattak gaur egun karguan jarraitzen du oraindik ere. Gbagboren antzeko akusazioei aurre egin behar izan zien: hauteskunde ondoen arerioen aurkako indarkeria agintzea. Kenyatta bere kabuz aurkeztu zen auzitegian, presidente zela, eta beste estatuetakako buruen babes zabalarekin.

Afrikako Ezohiko Ganbera Hagako auzitegiaren Afrikako alternatiba bihurtzeko asko falta da. Estatuak beren oniritzia eman beharko liokete horretarako, eta hori ez da oraindik gertatu

Zortzi kasu ageri dira Hagako auzitegiaren zerrendan: Kenya, Boli Kosta, Libia, Sudan, Kongoko Errepublika Demokratikoa, Afrikako Erdialdeko Errepublika, Uganda eta Mali

Erromako Estatutua uzteko bide orria diseinatzeko proposamena onartu zuen Afrikar Batasunak joan den asteburuan, Addis Abeba Etiopiako hiriburuan egindako gailurrean. GAUR8

INTSUMISIO GIROA NAGUSI AFRIKAKO AGINTARIEN AZKENENGO GAILURREAN

Addis Abeba Etiopiako hiriburuan joan den asteburuan egin zen Afrikar Batasunaren 26. gailurra, aurtengo lehenengoa. Bertan elkartutakoek ICC Nazioarteko Zigor Auzitegia uzteko bide orri bat diseinatzeko konpromisoa hartu zuten. Nazioarteko justiziaren aurkako Afrikaren hordagoa edo «Mendebaldeko interesen arabera justiziaren aurkakoa», gailurrean esku hartu zutenen arabera.

Idriss Deby Txadeko presidentek eskaini zuen azken eguneko hitzaldia, Afrikar Batasunaren presidente berri bihurtu ondoren. Oso gogor salatu zuen Hagako auzitegia, «Afrikako buruzagiak epaitu beste asmorik ez duelako». ICCkoek erantzuten dute era inpartzial batean justizia egiten saiatzen direla beti, eta afrikarrekin ere horrela egiten dutela.

Debyk Robert Mugabe Zimbabweco presidentek utzitako kargua hartu zuen Addis Ababako gailurrean. Aurki 92 urte beteko dituen agintariak ere izango ditu arrazoiak nazioarteko auzitegiak saihesteko, bere aurkako salaketa ugari egin izan baitute oposiziokoek, baina, Etiopiako bileran, ordubeteko hitzaldia eskaini bazuen ere, ez zuen aipatu ere egin gaia. Mendebaldearen, Barack Obama AEBetako presidentearen, homosexualen eta gobernuz kanpoko erakundeek Afrikan egiten duten lanaren kontra hitz egin zuen.

Azkenean Afrikak ICC uzten badu, Errusia, AEBak, Txina, India eta Israelen egoera berean geratzeko da Hagarekiko.



Ilyas AKENGİN | AFP



IKUSMIRA

GATAZKAK ERAGOZTERIK IZAN EZ DUEN EZKONTZA KURDUA

Argazkian ageri den bikotearen ezkontza eguna da. Kurduak dira eta Diyarbakir hirian bizi dira. Erasoek eta etengabeko liskarrek sortutako keari begira daude. Soldadu turkiarren eta PPKren arteko borrokek sorturiko kea da. Egun horretan, urtarrilaren 27an, lau soldadu hil zituzten. Hori izango da beraien ezkontza eguna

gogoaraziko dien argazkietariko bat. Maitasuna eta gatazka tartekatzen dituen. Nazio Batuetako Giza Eskubideetarako Goi Mandatariak, Zeid Raad al Husseinek, Turkiako Armadaren ekintzak iker daitezen eskatu du. Plazaratutako bideo batean, soldadu turkiarrak Cizre herri kurduko zibilien kontra tiroka ageri dira, nahiz eta eskuetan bandera zuria duten. «Irudiak benetan hunkigarriak dira», adierazi zuen. Urtarrilaren 20an gertatu zen. Zauritu batzuk lagundu nahian ari zen pertsona talde baten kontra egiten zuten. Bi hildako egon ziren, tartean zinegotzi bat, eta hamar zauritu. Hori da bikote honek eta, oro har, kurduak bizi duten errealitate gordina. Ainar Lertxundi

ZIKA BIRUSAREN ABEZEA

Osasunaren Mundu Erakundeak larrialdi globaleko egoera ezartzea erabaki du

 **OSASUNA** / Ainara Lertxundi

Zikaren birusak alarma guztiak piztu ditu, Latinoamerikan batik bat. Lehen aldiz 1947an antzeman zuten gaitza azkar hedatzen ari da azkenaldian hainbat herrialdetan. Dengea eta chikungunya bezain larria ez bada ere, jaioberrietan mikrocefalia sor dezakeen susmoa dute adituek. Brasilen 4.000 ume jaio dira jada mikrocefaliarekin.

Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) larrialdi globaleko egoera ezarri du Zika birusa dela eta. Birusa mikrocefalia kasuen hedapenarekin lotu du. Iazko urrutik, Brasilen 4.000 ume jaio dira mikrocefaliarekin, 2010etik 2014ra izan zirenak baino hogeitaz gehiago. Salbuespen egoera oso gutxitan ezartzen du OMEk, gaitza hainbat herrialdetara hedatu eta bertako biztanleriaren osasunerako arrisku bat bihurtzen denean bakarrik. 2014an ebolarekin deitu zuen larrialdi egoera.

Baina, zer da zika? Nola kutsatzen da? Zerk eragiten du? Non bizi da birusa kutsatzen duen eltxoa? Herri batetik bestera mugitzen al da? Galdera horiei guztiei erantzuna emateko txosten bat prestatu du OMEk.

ZER DA ETA NOLA KUTSATZEN DA?

Aedes familiako bi eltxok, *aegypti* eta *albopictus* izenekoek, kutsa dezakete Zika birusa. Gehienetan, eskualde subtropikaletan eta tropikaletan kokatzen da birusa, *Aedes aegypti* eltxoaren eraginez, eltxo mota horrek ez baitu tenperatura hotzetan bizirauten. Baina Zika birusa *Aedes albopictus* eltxoak ere kutsa dezake, eta eltxo horrek hibernatzeko gaitasuna du, eta, hortaz, tenperatura hotzeko eskualdetan bizirauteko gaitasuna du.

Zika lehen aldiz Ugandan antzeman zuten, 1947an. Luzaroan kasu bakar batzuk azaldu ziren Afrikan eta Hego Asian. Lehen

zika agerraldi dokumentatua 2007koa da, Pazifikoan emandakoa. 2013tik Mendebaldeko Pazifikoan, Afrikan eta Amerikan agerraldiak egon dira aldiro.

Dengea, chikungunya eta sukar horia eragiten dituen *Aedes* familiako eltxoaren ziztadak sorrarazten du Zika birusa.

NOLA SORTZEN DA «AEDES» ELTXOA?

Aedes familiako moskito emeak soilik egiten du zizta. Pertsona bat aldizka ziztatuz jaten du eltxoak. Behin ase denean, hiru egunez atsedean hartu behar du arrautzak jarri baino lehenago. Urik gabe urtebete biziraun dezakete arrautzek. Nahikoa da ur geldixka bat egotea arrautzak larba bihurtzeko eta, ondorioz, moskitoak birusa duen norbait ziztatzean kutsatzen dira.

HERRIALDE BATETIK BESTERA AL DOA?

Aedes familiako eltxoak ez dira oso hegalaria; ez dira 400 metro baino gehiago hegan egiteko gai. Baina, gizakiek oso erraz garraia ditzakete konturatu gabe, esaterako autoan edo landareen bitartez. Helmugara iristean eltxoa ez bada tenperatura aldaketagatik hiltzen, ugaltu egin daiteke bertan.

ZEINTZUK DIRA ZIKAREN SINTOMAK?

Oro har eta haurdun ez dauden kasuan, kutsatutako *Aedes* eltxo batek zizta egin eta egun batzuetara, sukarra, larruazaleko erupzioak, nekea, muskulu nahiz artikulazioetako ahuldadea, buruko mina eta konjuntibitisa senti daitezke. Ziztada jaso eta hiru eta hamabi egun

Zika birusa eragiten duen «*Aedes aegypti*» eltxoari El Salvadorko Unibertsitateko laborategi batean egindako argazkia. Marvin RECINOS | AFP



artean agertzen dira lehen sintomak. Normalean, hiru eta zazpi egunen artean irauten dute. OME berak aitortu duenez, oso gutxi dakite oraindik birusak sor ditzakeen konplikazioen gainean.

Zikaren lehen agerraldiarekin batera (2013 eta 2014 tartean Frantziar Polinesian), denge izurrite bat ere egon zen. Osasun erakundeek Guillain-Barre sindromearen ezohiko gorakada antzeman zuten. Oraindik bigertaerek nolabaiteko harremana ote duten ikertzen ari dira.

2015ean, Brasilen eman zen zikaren lehen agerraldia. Guillain-Barre sindromeak nabarmen egin du gora geroztik, baita

mikrocefaliarekin jaiotako ume kopuruak ere. «Ezin izan dugu ziurtatu Zika birusak harreman zuzena duenik mikrocefalia kasuekin eta gaitz neurologikoekin. Baina malformazio kasuak hain dira larriak, larrialdi egoera ezarri dugula», adierazi zuen David Heymann OMEko Larrialdietarako Batzordeko presidentek berria ezagutaraztean.


Guillain-Barre sindromeak kalte neurologiko larriak eragin ditzake, nerbio sistemaren parte bati eraso egiten baitio. Birus desberdinek eragin dezakete sindromea, adin guztietako pertsonetan. Adituek ez dakite zehatz-mehatz zerk eragiten duen sindromea. Sintoma ohikoenak muskuluetako ahuldadea eta beso eta hanketako inurridura dira. Gaitza larriagotu egin daiteke arnasketako muskuluei eraginez gero. Guillain-Barre sindromea pairatzen duten gehienak errekuiperatu egiten dira, nahiz eta nolabaiteko ahuldadea izaten jarraitzen duten.

HAURDUNENTZAT ARRISKUTSUA AL DA?

Birusaren eta mikrocefaliaren arteko harremana ikertzen ari dira oraindik orain. OMEk haur-

«Ezin izan dugu egiaztatu zikak harreman zuzena duenik mikrocefalia kasuekin eta gaitz neurologikoekin. Baina malformazio kasuak hain dira larriak, larrialdi egoera deitu dugula»

Momentuz birusa Latinoamerikan kokatzen bada ere, «Aedes» eltxoak Afrika osoan, Asiako hainbat eremutan –hegoan batez ere– eta Europa hegoaldean bizi direla ohartarazi dute



neurrian. Ingurunearekin lotutako faktoreek edo genetikoek –Down sindromea esaterako– ere eragin dezakete mikrozealia, edo haurdun egonik alkohol gehiegi edateak, drogak hartzeak edo errubeola izateak.

ZEIN TRATAMENDUA DU ZIKAK?

Gorputzeko minak eta sukarra jaisteko hartzen diren ohiko botikak erabiltzen dira. Atsedean hartzea eta ur asko edatea ere gomendagarria da. Sintomak larriagoak badira, medikura joan behar da. Egun ez dago zikaren kontrako txertorik. Diagnostikoa odol analisi bidez konfirma daiteke. Arestian aipaturiko sintomaren bat izatekotan osasun etxera joan behar da. Gobernu espainoleko Osasun Ministerioak aspirinarik eta antiinflamatorio esteroiderik –ibuprofenoa– ez hartzeko aholkatu du.

BA AL DAGO BABESTEKO MODURIK?

Zika eta eltxoek eragiten dituzten bestelako gaixotasunak ekiditeko –dengea, chikungunya eta sukar horia– modu eragin korrena ziztadurak saihestea da. Horretarako, eltxoak uxatzeko produktuak erabiltzea, besoak eta hankak estaltzen dituzten kolore argiko jantziak janztea eta eltxo-sareekin lo egitea gomendatu du OMEk. Leihoak eta ateak ixtea eta ur geldiak ekiditea edo horiek garbitzea –ontzi edo loreontziak adibidez– gomendatzen da.

«EL NIÑO» BERAK ERAGINIK OTE DU?

Aedes aegypti eltxoa ur geldiak dauden gunetan ugaltzen da. Muturreko lehorde, uholde, euri jasa eta tenperatura igoerak dira *El Niño* izenez ezagututako fenomenoaren ondorioetariko batzuk. Baldintza klimatiko horiek eltxo ugalketa errazten dute. Muturreko baldintza klimatiko horien ondorioak murrizteko eta eltxoak kontrolpean edukitzeko herrialdeen arteko elkarlan beharra nabarmendu du OMEk. Asia ere alerta egoeran da jada, Indian *Aedes* eltxoa antzeman baitute. Gehiegizko populazioak, bizi baldintza kaskarrak, klimak, euri jasek... zikaren arriskua handitzen dute bertan.

dun dauden emakumeei edo haurdun gelditu nahi dutenei tentu handiz ibiltzeko gomendatu die. Herrialde batzuetako gobernuak –Kolonbia, Dominikar Errepublika, Jamaika, Ekua-dor edo El Salvador esaterako– haurdunaldia atzeratzeko eskatu dute prebentzio neurri gisa. Ameriketako Estatu Batuek haurdun daudenei zika kasuak ematen ari diren herrialdeetara ez bidaiatzeko gomendatu diete, baita Frantziako Osasun ministroak ere.

OMEk bidaiatu aurretik zikari eta eltxo eta intsektuek sorrazten dituzten beste gaixotasunei buruz informazioa eskuratzeko gomendatu die bidaiariei. Babesteko, ziztadurak saihestu behar dituzte.

ZER DA MIKROZEALIA?

Jaiotzerakoan buruaren tamaina ohi baino txikiagoa izatea da mikrozealia. Burmuinaren ezohiko garapena da kausa. Fetua umetokian dagoen bitartean edo haurtzaroan antzeman daiteke. Mikrozealea pairatzen duten bularreko-haurren eta umeen burmuina ez da behar bezala garatzen hazten doazen

ZIKAREN BIRUSA AMERIKETAN (urtarrilaren 17tik otsailaren 4ra)





Saioa Aginako
Psikoterapeuta

Amaiera zoriontsuak

Erreinuko errege eta erreginak, beraien lehenengo alabaren jaiotza ospatzeko asmoz, sei maitagarriak gonbidatu zituzten festara eta zazpigarren maitagarriaz ahaztu egin ziren. Azkeneko hori, minduta, ezustean agertu zen ospakizunean. Ez hori bakarrik, haserre, zazpigarren maitagarriak madarikazio bat ere bota zuen alaba jaioberriaren gainean...». XVII. mendean Charles Perrault idazleak paperera eramandako hainbat ipuinetan bezala, Loti Ederraren zatia den honetan ere mehatxua eta mendeku grina dira gatazkari erantzuteko erakusten diren jokabideak. Non eta mota honetako ipuin guztietan ikusten den bezala, gatazkaren alde batean daudenak galtzaile eta besteak irabazle ateratzen diren. Alde batetik, kontakizunak pertsonon eta gizartearen pentsamenduen isla dira; bestetik –eta aldi berean–, narrazioak ere pertsonontzako eredu dira. Beraz, nolabait, kultura baten zati diren kontakizunak kultura horren zantzu dira, eta zantzuak aldatzen ez diren heinean kultura baten jokabideak ere aldatzen ari ez diren seinale da.

Gatazka gizakiari datzekion ezaugarria da. Egunerokotasunean hainbat gatazkari egin behar diegu aurre izaki sozialak garen neurrian. Askotan, gainera, beste inorekin gatazkan sartu gabe nork bere barne gatazkei ere egin behar izaten diegu aurre, sentimenduen eta pentsamenduaren artekoiei, adibidez. Orokortuz, gatazka urduritasuna eta ondoeza sortzen duen egoera da, haserre eta beldurra emoziorik nabarmenenak izanik. Horrela esanda, gatazka kondizio negatibotzat jotzea onargarria izango litzaiguke; alderantziz, positiboa izan daitekeela esaten duten ikuspegiak badaude, gatazkak bizitzan zehar suertatzen zaizkigun krisialdiak direla diotenak eta, horiei aurre egiten ikasita, indarberrituta aterako garela gaineratzen dutenak. Hala, ikuspegiok gure pertsonaren bilakaerarako eta egoera aldaketetarako aukera bezala aurkeztu dituzte gatazkak.

Gizakiak, sozialak izateaz gain, konplexuak ere bagara eta konplexutasun horretatik abiatuta gatazkei aurre egi-

teko hartzen ditugun jokabideak anitzak dira. Hala ere, ez zaizkigu guztiak lagungarriak izango. Batetik, gatazka baten barruan gaudenean, garrantzitsua izango da gure beharrei begiratzeaz gain bestearen beharrak ere kontuan izatea. Bestetik, bi beharren arteko oreka bilatzen saiatuko gara; prest egon behar dugu zerbait irabazi eta beste zerbait galtzeko. Jokabideok, beste batzuekin batera, bildu eta guztiak barneratzen dituen hitz bat asmatu zuten adituek: “asertibitatea”.

Asertibitatea egoera gogorrei segurtasunez eta lasaitasunez erantzuteko gaitasuna da, eta gatazka egoeretan hitz eginez, elkar ulertuz eta guztientzako bidezkoak diren konponbideak bilatuz eraikitzen den jarrera da. Asertibitateak manipulatuak sentitzen garenean antsietaterik gabe erantzuteko trebetasuna eta bidezkoak ez diren eskaerei mugak jartzeko gaitasuna ere barne hartzen ditu. Asertibitatea landu daitekeen trebetasuna da, ez baita jaiotzarekin batera garatzen den ezaugarria. Asertiboak izan nahi baldin badugu, lasaitasunezko ja-

rrerak izaten saiatu beharko gara, haserretzen gaituen ekintza zehazki gure pertsonari egiten ez zaiola kontuan hartuko dugu, gatazkan sartzera eraman gaituen beharra argi eduki eta bidezkoa dela pentsatuko dugu, manipulazioen aurrean defendatu eta hitzarmenak bilatuko ditugu.

Gatazkei ihesarekin aurre egitea mingarria izan daiteke guretzat, benetan gure eskubideak eta beharrak zanpatuak eta baztertuak izaten ari direla sentitzen badugu; luzarora haserre sentimendua jar dakiguke eta gure autoestimua kaltetuta ater daiteke. Aldi berean, hasierako ipuin zatian bezala, mehatxuek, madarikazioek, bestearekiko epaiek... ez dute gure beharrak asetzen lagunduko bestearen beharrak ase ez geratze hutsagatik. Gainera, bi aldean artean harresi bat zutituko da; komunikazio eta adostasunerantz doazen bideak itxita geratuko dira. Bide horiek hartzen dituzten kontakizunek ez dute amaiera zoriontsurik. •



Askotan, barne gatazkei egin behar izaten diegu aurre.

THINKSTOCK

{ asteari zeharka begira } **Ramon Sola**

Ezer ez egitearen joera eta edozer eragitearen artea

Gatazkak konpontzeko prozesuetan aditu direnek Euskal Herriko egoera aztertzeke egindako bilkuretan –gaur dela astebeteko Gernikakoa kasu– beti sentitzen da nolabaiteko harridura berezi bat. Munduko edozein tokitik ikusita, edonori guztiz ulertezina deritzo 2011ko urrian Euskal Herrian irekitako aukera Madrilgo Gobernuak baliatu ez eta urrats bakar bat eman gabe 1.500 egun pasatzen utzi izana. Baina horrela jokatu du Mariano Rajoyk, eta ez nuke esango horretarako erabaki irmoa hartua zuelako egin duenik. Hamakan eroso etzanda, purua sakon erretzen eta “Marca” eskutan irudikatu ohi du komikigile ezagun batek, eta horrelakoxea da Rajoy, ez soilik gai honen aurrean, baita kataluniar prozesuaren edota ustelkeriaren aurrean ere, edota presidentegai izateko erregearen gonbitari entzungor egiterako orduan.

Tancredo jaunaren jarraitzaile asko du politikak gure inguruan, hieratikotasunerako zaletasun nabaria; edozein arazoren/aukeraren aurrean *kieto parau* gelditzea lehen aukeratzat dute agintari garantzitsuek. Ezer ez egitearen artea deitu ohi zaio, denbora ezer gertatu gabe pasatzen uztea maisutasuna bailitzan. Artea seguru ezetz, asko jota abilezia litzateke, eta gure inguruan nola zabaldu den ikusirik joera arruntzat ere har genezake. Rajoyk badu fama, baina gauzak pixka bat aztertuz gero Iñigo Urkullu bera are eredu garbiagoa da. Izan ere, EAEko lehendakaria ez da soilik ezerezaren egonkortasunaren miresle, babesle ere bada. Ikusi besterik ez dago ustekabeko edozein mugimenduk –txikiena delarik ere– eragiten dion erabateko egonezina, minutu eskasetan barruan gordetzerik ez duen haserreari bide ematen diona. Bi adibide ezagun jartzeagatik, horra hor 2014ko San Tomas eguneko arratsaldean Nazioarteko Egiaztatze Batzordeak ETAren armagabetzerako urratsak txalotzeko egindako adierazpenari zein zatarki erantzun zion, segidan tiraderatik kontraproposamena atera eta iritzi publikoari jakinaraziz; edo berriki, urtarrilaren gan hain zuzen ere, Katalunian JxSk eta CUPEk inork gutxiak aurreikusten zuen akordioa lortu zutela jakiteak barruan piztu zion sua, hurrengo egunean EAJk amatatu behar izan zuena. Amaierara heltzeaz garelarik, erraz egiten da bere legealdiaren balantzea, Urkulluk berak definitu zituen hiru lan esparru nagusiak aztergai hartuta gaine-

ra: estatus berriaren konpromisoan, zero patatero; gatazkaren konponbidean ere, ezertxo ere ez; eta, krisiaren aurkako borrokan, testuinguru orokorreko hobekuntza xumeaz aparteko, deus ez. Eta hala ere, gustura sumatzen dugu Iñigo Urkullu, bai, gauzak orain arte egon diren bezala utzi dituelako bere buruarekin konforme-edo.

Politika egiteko molde klasiko horren aurrean proaktibitatearena agertzen da, modako hitza. Errealitateak aldarazteko, egin egin behar da, edo, hobe oraindik, eragin egin behar da. Gernikako jardunaldira itzuliz, euskal prozesuaren ezaugarri nagusia zein den argi dute nazioarteko aditu horiek guztiek: aldebakartasuna, kontzeptu zinez iraultzailea. Ekimena. Maisuki aldarazi zuen agertokia ezker abertzaleak duela bost urte, nahiz gero barruko eta kanpoko joera immobilistek aldatetari galga jarri dioten.

Beste adibide bat emateagatik, espainiar *statu quo*ari astindu ederra ematen ari zaio Podemos. *Tacticismoa* deitu zaio, mespretxuz, bere jardunari; esaterako, Pedro

Politika egiteko molde klasikoen aurrean, proaktibo izatearen dohainak argiak dira. Errealitateak aldarazteko, egin egin behar da, edo, hobe esanda, eragin egin behar da

Sanchez Zarzuelan erregearekin bilduta zelarik, aurretik ezer esan gabe Pablo Iglesiasek PSOEko buruari koalizio gobernua osatzeko proposamen zehatza luzatzea ri. Gidoitik kanpo zen mugimendu txiki horrek, baina, tximeleta efektua izan du: a) Sanchezi aukera parez pare jarri dio, aukera iritzi publikoaren aurrean bistaraziz. b) Ondorioz, Rajok bere burua alboratu eta Sanchezi bide eman dio, orden logikoa aldatzea hobe izango dela sinetsita. c) Lehen lerroan kokaturik, Sanchezek alderdi barruko arerioei aurre egin behar izan die. d) Erregeak Sanchez hautagai izendatu behar izan du eta Podemos du orain, neurri handi batean, inbestidurarako giltza. Ez dakit hori artea, abilezia edota besterik gabe politika egitea den. Baina argi dago ezer ez egiteko manieren aurrean askoz emankorragoa dela egitea, eragitea. •

{ analisis } **Martxelo Diaz Aristizabal**

Nafar hezkuntzaren korapiloa

Zurrunbiloaren erdian dago azkenaldian Nafarroako hezkuntza publikoa. Polemika ugari sortu dira azkenaldian oinarritzko gai estrategiko honen inguruan. UPNren urte ilunek ondorioak utzi dituzte eta Uxue Barkosen Gobernuak zailtasunak ditu bestelako politikak indarrean jartzeko –tarte an Madrilen esku hartzeak ere badira–. Eztabaidaren erdian, herritar arruntentzat zein politikarientzat beraientzat arrotzak diren kontzeptuak erabiltzen dira askotan. Adibidez, zerrenda bakarrarena. Pentsa, Geroa Bai taldeko eledun Koldo Martinez berak zer den azaltzeko denborarik ez zuela bota zuen astelehenean bertan. Aldi berean, baina, pedagogia beharrezkoa dela gaineratu zuen. Erronkari erantzunez, eztabaida politikoak maiz estaltzen dituen kontzeptuei buruz ariko gara.

Zerrenda bakarra

LABentzat zerrenda bikoitzarekin amaitzea lehentasuna da eta ondorioz Aldaketaren Gobernuak proposatutako lan eskaintza publikoa ezin duela onartu adierazi du. EH Bildurentzat ere aldatu beharreko zerbait da. Geroa Bairentzat, ordea, ez da lehentasuna zerrenda bikoitzarekin amaitzea.

Baina zer da zerrenda bikoitza? Zer da zerrenda bakarra? Nafarroan –Vascuencearen Legeak ezartzen duen zonifikazioa albo batera utziko dugu momentuz– bi hizkuntza ofizial daude: gaztelera eta euskara. Administrazio publikoko langile izateko oposizioetan, horrenbestez, bi hizkuntzok jakitea eskatzea izango zen normalena.

Eztabaida politikoaren erdian kokatu da Nafarroako hezkuntza sistema publikoa azkenaldian. Aldaketaren Gobernua sostengatzen duten alderdien artean bertan ere pitzadurak sortu dira eta oposizioak gaia baliatu du. Hezkuntza publikoaren auzian modu desegokian erabiltzen dira maiz kontzeptu asko. Goazen bada horiek argitzera.

Aldiz, Estatu espainolean bi hizkuntza ofizial dituzten beste erkidegoetan ez bezala (EAE, Galizia, Katalunia, Valentzia eta Balearrak), bi hizkuntza ofizialak jakitea kaltegarria da Nafarroan irakasle izan nahi dutenentzat. Izan ere, bi lerro daude eta batetik bestera pasatzea ezinezkoa da. Euskarazko lerroan irakasle izan nahi dutenentzat oposizio bat antolatzen da, eta, gaztelera lan egin nahi dutenentzat, beste bat. Azken urteotan egin diren deialdi guztietan, baina, egun berean egin dira euskarazko eta gaztelera irakasleen oposizioak. Horren helburua argia izan da: oposizio bakar batean soilik aurkeztu ahal izatea. Helburu zehatza, azken batean, euskaraz eskolak eman nahi dituztenei gaztelera ere irakasle izateko bidea ixtea izan da. Izan ere, irakasle euskaldunak (edo gehien-gehienak behintzat) gai dira klaseak gaztelera ere emateko. Beste modu batera esanda, bi lerroetan irakasle izateko formakuntza dute.

Bi hizkuntza ofizial dituzten Estatuko beste erkidegoetan zerrenda bakarra dago. Valentzieraz eskolak emateko valentziera jakin behar da eta hori kontuan izaten da. Zerrenda bakarretik valentzieraz dakitenak hautatzen dira valentzieraz eskolak emateko. Gaztelera irakasteko edozein irakasle dei daiteke, guztiek gaztelera dakitelako. Elebakarrek gaztelera baino ez dakite. Elebidunek, bi hizkuntza ofizialak. Valentziera eta gaztelera. Edo euskara eta gaztelera.

Hain zuzen ere, zerrenda bakarreko sistema hori da LABek eta EH Bilduk Nafarroarako nahi dutena. Modu horretan, hizkuntza bat gehiago dakitenek pairatzen duten diskriminazioarekin amaitu nahi da. Oinarritzko es-

Zerrenda

Zerrenda bikoitzaren ondorioz, bi hizkuntza ofizialak jakitea kaltegarria da Nafarroan irakasle izan nahi dutenentzat. Izan ere, bi lerro daude eta batetik bestera pasatzea ezinezkoa da. LABek eta EH Bilduk zerrenda bakarra nahi dute.

Haserre

Ustez euskarari emandako lehentasunak sutan jarri zituen UPN, PP, PSN eta UGT, CCOO edo Afapna sindikatuak. Ustekabean, baina, Ezkerra eta Ahal Dugu ere haserretu ziren, Gobernuarekin hitzarmen pragmatikoa adostu zuten bi alderdi.

kaera da, kutsu abertzalerik ez duena. Merezimendua baloratzen da, ez besterik. Zerrenda bakarra izan dute azken urteotan Valentzian, bertako Generalitatea PPren adar ilunenaren esku egon bada ere (Francisco Camps, Eduardo Zaplana...). Geroa Bai eta Uxue Barkosen Gobernuarentzako, aldiz, zerrenda bikoitzarekin amaitzea ez da lehentasuna. Horrek tirabirak sortu dizkio bidaide duen EH Bildurekin.

Lan eskaintza

Oposizioak deitu ahal izateko, lehenengo dagokion lan eskaintza publikoa onartu behar du Nafarroako Gobernuak. Bide horri ekin zion azaroan Jose Luis Mendoza buru duen Hezkuntza Departamentuak. Asmoa, sindikatuekin negoziatzea zen (LAB, Steilas eta ELAk gehiengoa dute), beharrezko aldaketak egin eta urtarilaren erdialderako lan eskaintza onartzeko. Baina prozesua nahaspilatu egin da.

Orotara 425 lanpostuk osatzen zuten Mendozak aurkeztutako lan eskaintza publikoa. Horietatik 334 lanpostu aurten jarri behar dira martxan eta beste 91 datorren urtean. Plaza gehienak Lehen Hezkuntzako eta Haur Hezkuntzako irakasle izateko dira, 320. Eta horien artean 228, euskaraz irakasteko. Gaztelerazkoak gutxiago dira, askoz gutxiago. Madrilek UPNk martxoan harturiko erabaki bati aurkezturiko helegiteak 120 plaza atzeratzea behartu du. Justu euskarako lerroarentzat zirenak.

Ustez euskarari emandako lehentasunak sutan jarri zuen orain oposizioan den UPN. PP, PSN eta UGT, CCOO edo Afapna



Jose Luis Mendoza hezkuntza kontseilariak azaroan ekin zion oposizioak deitu ahal izateko bideari. Uste baino korapilatsuagoa gertatzen ari da, Ezkerrak eta Ahal Duguk espero baino traba gehiago jarri dituztelako. Iñigo URIZ | ARGAZKI PRESS

sindikatuak ere oso haserre agertu ziren. Hori normalizat ere har zitekeen, Gobernuak aurreikusitako gidoiko parte. Baina, ustekabean, sutan jarri zirenen artean Ezkerra (I-E) eta –maila apalago batean– Ahal Dugu ere bazeuden, Gobernuaren oinarri den hitzarmen pragmatikoa adostu zuten bi alderdi. Gainera, alderdi horiek guztiek Parlamentuak lan eskaintza publikoaren kontrako adierazpena onartzea ere lortu zuten indarrak batuta. Oposizioa eta Gobernua babes ten duten alderdiak elkarrekin Gobernuaren aurka. Horrenbestez, EH Bildu eta Geroa Bai ren sostengua baino ez du izan Gobernuak afera honetan.

Sorturiko korapiloa askatzeko asmoz, hitzarmen pragmatikoa sinatu zuten lau alderdiek (Geroa Bai, EH Bildu, Ahal Dugu eta Ezkerra) negoziazio prozesu bati ekin zioten. Ordu luzeak eman dituzte bilduta baina ez dira konponbiderik topatzeko gai izan. Gobernuak (eta Geroa Baik eta EH Bilduk) eskaintza publikoaren lanpostu banaketa tekniko zela nabarmendu dute behin eta berriz. Ezkerrak (eta Ahal Duguk maila apalagoan) euskara gehiegi lehenesten zela errepikatu dute behin eta berriz. Hezkuntza Departamenduaren argudio nagusia proposatutako lanpostu banaketak gurasoen eskaerari erantzuten diola izan

da. Nola uler daiteke, Nafarroa osotasunean hartuta, euskarazko eskolek gaztelerazkoek baino eskari handiagoa edukitzea? Azken urteotan UPNren Gobernuak ingelesa komunikazio hizkuntza gisa indartu zuelako PAI programaren bidez, besteak beste, D eredua garapena mozteko. Hori dela eta, Erriberan, adibidez, gurasoek nahiago izan dute haurrak ingelesa eta gaztelera uztertzen dituen lerroan matrikulatzea gaztelera hutsezko lerroan baino. Ondorioz, “zonalde ez euskalduna” bezala ezagutzen den eremu horretan gaztelera hutsezko lerroek atzera egin dute, irakas kuntza elebidunaren (ingelesa-

gaztelera) mesedetan. Bien bi tartean, Iruñerrian D eredua gora egin du gaztelera hutsezko lerroaren aurrean. Eta PAI berak ere aurrera egin du. Ondorioz, gero eta ikasle gutxiago ari dira gaztelera hutsean ikasten. Eta, ondorioz, gaztelera hutsez aritzen diren irakasle gutxiago behar dira. Ez du zentzurik, beraz, gaztelera hutsezko plaza berriak deitzea. Euskarazkoak eta ingelesezkoak behar dira.

Zergatik prestatu du orduan Nafarroako Gobernuak euskarazko plazak nagusi diren lan eskaintza publikoa? Zergatik ez ditu ingelesezko plazak ere eskaintzen? Abertzalea delako? UPNk dioen bezala baztertzaila eta kolonizatzailea delako? Bada, ez. Gobernuak ez ditu ingelesezko plazak eskaini ezin duelako: Gobernu espainolaren dekretu batek ofiziala ez den hizkuntza batean lan egiteko plazak deitzea debekatzen du. Mendozak behin eta berriz esan du Gobernua ez dagoela ingelesaren garapenaren aurka eta aukera izango balu irakasle horien egoera normalizatuko lukeela oposizio baten bidez. Baina Madrilek ez du uzten.

Kontuak kontu, datorren astean aurkeztuko du Nafarroako Gobernuak lan eskaintza publikoa, azken orduan Madrilek aurkezturiko helegite bati aurre eginez. Erregimenaren sindikatu batek, Afapnak, Gobernuak Nafarroako irakasleak erbestera kondenatzen dituela bota du. Hau da maila.

D eredua

Aste honetan bertan, Nafarroako Gobernuak D eredua herrialdeko edozein tokira zabaltzeko aukera ematen duen erabaki garrantzitsua hartu du,



Irudian, D ereduaren aldeko manifestazioa, Iruñean. UPNk gogor egin du eredu horren kontra urte luzeetan eta ondorioak larriak dira. Oiarso LOS ARCOS | ARGAZKI PRESS

aurrematrikulazio kanpaina abian jartzearekin bat. Guraso kopuru «nahiko» batek horrela eskatzen badu, D ereduko lerroa zabal daiteke edonon, adibidez, Corellan. Iaz Ezkerra, PSN eta Geroa Baik bultzatutako Vascuencearen Legearen alaketan oinarritzen da oraingo erabakia. 2015eko otsailean Bildu eta Aralarrek (orduan oraindik bi talde desberdin ziren) sostengu kritikoa eman zioten aldaketa horri (LAB eta Steilas sindikatuek bezala). UPN eta PP izan ziren aldaketaren aurka azaldu ziren talde bakarrak.

Orduan, Bilduk eta Aralarrek aldaketa erdibidean gelditzen zela adierazi zuten, ratioen aferarengatik. Euskaraz ikasteko eskubidea, formalki, Nafarroa osoan onartzen zen, baina Gobernuaren esku gelditzen zen hori foru dekretu bidez arautzeko aukera.

D eredua

Nafarroako Gobernuak D eredua herrialdeko edozein tokira zabaltzeko aukera ematen duen erabaki garrantzitsua hartu du. Guraso kopuru «nahiko» batek horrela eskatzen badu, D ereduko lerroa zabaldu daiteke edonon.

UPN zegoen orduan Gobernuan eta euskarazko lerroa zabaltzeko gutxienez hogeikaskale eskatzen zituen Iruñean eta hamabost beste udalerrietan (“zonalde ez euskaldun” zein “euskaldunekoak” izan, hau da, berdin zen Erribera, Lizarralde edo Sakana).

Gobernuak orain egin duena ratio edo gelak irekitzeko gutxieneko kopuruak jaitea izan da. Hala, hemendik aurrera zortzi ikasle beharko dira euskarazko gela bat zabaltzeko. Aurreko kopuruarekin ezinezkoa zen kasu askotan, orain aukerak egon badaude. Izan ere, hainbat herritako ikasleak bildu ahal izango dira euskarazko gela osatzeko eta Gobernuak autobusa eta jantokia ere eskainiko ditu. Hezkuntza Departamenduak nabarmendu duenez, ez da inoiz euskaraz ikastera behartuko. Gurasoek egiten duten hautuaren arabera ikasiko dute seme-alabek hizkuntza eredu batean edo bestean. Orain arte euskararen kontra hainbat eskualdetan zeuden trabak kendu (edo arindu) dituzte. Bestetik ez.

Euskara, balore bat

Sortzen taldeko eledun Sergio Iribarrenek ere hautuaren elementua nabarmendu eta euskarazko lerro berriak zabaltzeko gurasoen artean egin beharreko lana azpimarratu du. «Iruñerrian 8oko hamarkadan ematen zen egoera berberaren aurrean gaude. Nire gurasoek, adibidez, ez ninduten euskaraz matrikulatu. Bazegoen euskarekiko beldur eta ezjakintasuna. Egun, berriz, euskara jakitea balore bezala hartzen da Iruñerrian. Lan hori beste

eskualdetan egitea tokatzen zaigu orain», azaldu du.

Aurrematrikulazio kanpainan murgilduta dago uneotan hezkuntza komunitate guztia. Egunotan gelditzen dira agerian gurasoen nahiak eta eredu bakoitzaren eskari zehatza. Horregatik, Sortzenek D ereduaren aldeko kanpainari ekin dio. “Zonalde ez euskalduneko” herrietan D ereduan ikastearen onurak zeintzuk diren azaltzeko mintzaldiak egingo dituzte. Lehenak Caparroso (Aragoi ibaiaren ertzean, Erribera eta Erdialdearen arteko mugan) eta Oteitzan (Lizarraldean). «Dena den, lan guzti hau ez da orain korrika eta presaka egin behar. Datorren urtean ere zabal ditzakegu euskarazko lerroak. Hobe da poliki aritzea eta ez dekretu bidez PAIrekin egin zuten bezala», dio Iribarrenek.

Nafarroa anitza da gauza askotan eta populazio banaketan ere hori gertatzen da. Ez da berdina Erriberako herri handietan bizitzea edo Lizarraldeko herrixketan. Edo Pirinioaurrean. Eta horiek guztiak ustezko “zonalde ez euskaldun” horretan kokatzen dira. Ez da berdina ere eskualde batean edo bestean euskararekiko atxikimendua. D ereduaren (eta euskararen) onurak azpimarratzea da Sortzenek bere gain hartu duen lana. Nafarroako bi hizkuntza ofizialak jakitea (atzerrikoekin batera) balorea dela nabarmentzen du. Horrekin batera, D eredua herri txiki eta ertain askotan eskola irekita mantentzeko tresna ere izan daitekeela nabarmendu du Iribarrenek. Ziraukiren kasua aipatu du, baina badira gehiago (Mañeru, Murieta). D ereduaren aldeko hautua egin dute gurasoek eta

PAI

PAI atzerriko hizkuntza ikasteko programa bat da eta D eredua, berriz, hizkuntza eredu bat; bi gauza ezberdin. D ereduaren bertan ere txerta zitekeen PAI programa, G ereduaren egin bezala. Nafarroan bata bestearen aurrez aurre kokatzen saiatu dira beti.



Azken urteotan gora egin dute D eredua eta PAI programak, gaztelera hutseko eskaintzaren aurrean. Iñigo URIZ | ARGAZKI PRESS

zonifikazioaren eraginez Garresera joan behar dute egunero. Bitartean, herriko eskola itxi behar izan dute gaztelera ikasi nahi dutenak ez direlako nahiko. «D eredua etorkizuna da horretarako ere. Herrietan euskaraz ikasteko aukera emateak eskolak bizirik mantentzea suposa dezake», azaldu du Iribarrenek.

Auziak erpin asko ditu, hezkuntza eskubideak eta lurralde antolaketa bezalako gaiak hartzen baititu. Herri txikietan zerbitzuak eman behar direla aldarrikatzen da maiz eta eskola ezinbestekotzat jotzen da biztanleria mantentzeko edo erakartzeko. Horregatik, Sortzenen kezka ikusten dute Gobernuaren erabakiarekin eskual-

de mailako eskolak sortzeko joera egon daitekeelako herrietako en kalterako.

PAI

PAI. *Programa de Aprendizaje en Inglés* edo Ingeleseko Ikasteko Programa. Horixe da UPNren Gobernuak D ereduaren garapena oztopatzeke antolatu zuen ekimenaren izena. Horrela onartu zuen behintzat Yolanda Barcinak berak Madrilgo Intereconomia telebista ultraeskuindarrean egin zioten elkarrizketa batean. Planteamendua honakoa da: ingelesa modernoa da, Europako kokatzen baikaitu eta lana aurkitzeko hobe da; euskara, berriz, atzerakoia eta abertzaleek bultzatzen duten

bazterkeria indartzeko tresna da.

PAI atzerriko hizkuntza bat ikasteko programa bat da eta D eredua, berriz, hizkuntza eredu bat. Beraz, bi gauza ezberdin dira. D ereduaren bertan ere txerta zitekeen PAI programa, G ereduaren egin bezala, adibidez. Aldiz, Nafarroan bata bestearen aurrez aurre kokatzen saiatu dira beti eskularen eta komunikabideek.

Zein da arazo nagusia PAIren? Ba gauzak hasieratik egin direla gaizki. Barcinak azaldu-tako planteamenduari ez da harritzekoa. Arrapaladan sartu zuen UPNk D ereduaren garapena mozteko, eta, ondorioz, hezkuntzaren kalitatea bigarren mailan gelditu zen.

Ez zen taxuzko ikerketarik egin behar eta eskariak ezagutu eta ondoren eskaintza planteatzeko. Behin eta berriz salatu dute hori sindikatuek. Adibidez, ingelesez Matematika irakasten ari direnek ez dutela hizkuntza horretan eskolak emateko mailarik behin eta berriz salatu da.

Arazoak arazo, baina, kontrolik gabeko hazkunde azkarrak izan du PAI gaztelera hutsezko eskaintzaren aurrean. UPNren Gobernuak egin ez zuena egiteko, Jose Luis Mendozaren Hezkuntza Departamenduak PAIren garapena eten eta egoera aztertzea erabaki du. Horren aurrean, Erregimenaren alderdi, sindikatu eta komunikabideak sutu egin dira. Aste honetan ber-

tan, Mendozak berriz esan du Parlamentuan sarri errepikatu duena: Gobernuak ez du ezer Nafarroako ikastetxeetan eskolak ingelesez ematearen kontra. Arazoa da orain arte gauzak ez direla behar bezala egin eta hobeto dela gelditzea, egoera aztertu eta hortik aurrera hoberena erabakitzeko. Bartzelonan Ada Colauk hotelen etengabeko eta kontrolik gabeko hazkundearekin egin duen antzera.

Zonifikazioa


Aste honetako titular batzuek kontrako irudia eman arren, Vascuencearen Legeak ezarritako zonifikazioak eta horrek dakartzen hizkuntza eskubideen urraketak indarrean jarraitzen dute. Egia da Gobernuaren azken erabakiekin hezkuntza arloko eskubide urraketak konpontzeko bidea ireki dela (haurrek “barne mugak” zeharkatzeko egunero kilometro ugari egitea kasu), baina beste urraketa askok bere horretan jarraitzen dute (osasungintzan adibidez).

Egoera benetan konpontzeko Vascuencearen Legearen aldaketa sakona beharrezkoa da, nafar guztiei eskubide berberak onartuz, non bizi diren kontuan izan gabe. Hori da euskalgintzaren aldarrikapen historikoa, hauteskundeak baino lehen Anaitasuna kiroldegian egindako ekitaldian berretsitakoa. Arazoa Parlamentuan horretarako indar nahikorik ez dagoela da. Lau alderdi daude Aldaketaren Nafarroaren alde, baina soilik bik dute euskararen aldeko jarrrera. Eta bi horiekin ez da nahikoa.



Dani
Fano

iRRITZIA:



ITSASO BAT EMAKUME

Ariane Kamio Anduaga

Emakumeak sare konpontzaile gisa edo kontserba-industriako langile modura irudikatu izan dira imajinario kolektiborik berrienean. Atzera begiratuz gero, denboran haztatuz gero, agertuko dira baina gehientsuenontzat inoiz ikusi gabeak diren irudiak ere. «Emakumeak eta itsasoa» erakusketak biltzen ditu ezkutuko egietako batzuk.

Itsas bazterrean ibiltzera ohituta dagoen orok aiseago jakingo du emakumeak itsasoarekin izan duen harremana ez dela kasualitate hutsa izan, eta harreman horren muina ere ez dela publizitate kartel baterako aitzakia merkea. Emakumea aingura mugiezin bat izan da itsasoan, ontzia portura lotzen zuen txikota, eta are xeheago esanda, hamarkadetan zehar berebiziko garrantzia izan zuen eskulan merkea. Oso merkea.

Donostiako Untzi Museoa “Emakumeak eta Itsasoa” deritzan erakusketa zabaldu berri du, mendeetan atzera begirada zabaldu eta emakumeek itsasoarekin izan duten askotariko harremana egunotara ekarritz. Izan ere, edonork jakin dezake emakumeak izan direla arraina saltzen aritu direnak, edo kontserbaren alorrean haiek izan zirela piezarik eraginkorra. Baina garai modernoetatik Greziako klasikoetaraino joan daiteke nahi izanez gero emakumeak itsasoarekin izan duen lotura hertsia horretan sakontzeko.

Hasi hasieratik. Erakusketaren lehenengo ataletik. “Itsaslaminak, birjinak eta sorginak”. Denboran haztzen hasiz gero, klasikoetarainoko bidea egin daiteke. Emakumeak eta itsasoarekiko boterea. Mundu mitikoarekin edo imajinarioarekin zerikusia duten erreferentziak. Laminak. Ikonografia eta irudi oso desberdinak. Klasikoak, Erdi Arokoak edo modernoak. Emakumeekiko irudirik positiboena nereidek emandakoa litzateke, ongiaren eragile eta jendearen laguntzaile gisa ikusten baitziren. Greziarrek, esaterako, laminak ez zituzten arrain formarekin irudikatzen, txori itxurako izaki bezala baizik. Izan daiteke lamina bat ere fisikoki edertasun handikoa. Kondairak dioenez, gizonezkoak erakarrri eta itsasoaren hondora eramaten zituzten galbideraino. Munstroetatik gertu jarri dituenik ere badago. Japonia aldean.... eta Untzi Museoko behe solairuan. Ohitura japoniarrean munstroetara asko gerturatzaren diren izakiak daude, gorputz erdia arrain, beste erdia emakume. Garai bateko barraketan erakusten ziren izaki munstro itxurakoen antza dute, nahiz eta haiek gehientsuenetan hanka artetik sartutako gola baino ez ziren.

Eta laminen imajinariotik Ama Birjinenetara. Emakumea botere magikodun babesle erlijioso gisa. Marinelek asko erabili izan dituzte Ama Birjinen irudiak. Askok dira kostaldeari lotutakoak Euskal Herrian; Guadalupetako, Begoñakoa, Itziarkoa... Baita Arantzazukoa bera ere. Figurekin edo eskapulario gisa, itsasontzian

edo soinean eraman izan dituzte arrantzale eta marinelek beraien bidaletan. Ez bakarrik ordea beren larrua babesteko; sareetara ere lotzen zituzten eskapularioak arrantza ona izateko, arrainak erakartzeko. Horratx lehorrekook sekula jakingo ez genukeen bitxikerietako bat. Lehenengoa.

Eta iruditerian jarraituz, sorginak. Iru-di erabat negatiboa emakumearekiko. Esan izaten zen, bai Euskal Herrian bai beste hainbat tokitan ere, ahalmena zutela denboraleak sortu eta itsasontziak hondoratzeko. Inkisizioak Europa osoan jazarri zituen emakumeak itsasoan gertatutako ezbeharrekin zerikusia zutelakoan. Antonio de Okendorena izan daiteke adibideetako bat. Bere ontziteria osoa desagertu eta jende asko hil zen Pasaia-ko uretan. Jazoeraren errua Maria Zozayari bota zioten, sorgina zelakoan. Inkisizioak zigortu egin zuen eta erruduntzat jo, baina sutara bota aurretik hil zen.

Adimenean eraikitako emakumeen irudiez harago, errealitateak utzi ditu beste ikono batzuk ere. Emakumeak eta itsasontzia. Nola egon ziren presente Atlantikoaz gairaino nabigazioetan, konkistetan eta baita gerra batzuetan ere. Gehienak gizonezkoz jantzita, kapitain izatera ere iritsi ziren hainbat. Ez ziren ohiko kasuak, puntualak baizik. Katalina Erauso donostiarra izan daiteke adibidea.

Ez zen marinel izan, baina Antiguako komentua batetik ihes egin ondoren, gizon itxura hartuta munduratu zen itsasoz, Atlantikoa eta Pazifikoa gurutzatuz.

LANA EGITEN BAZEKITEN

Ea ba. Ikastolako azterketa. Azterketa sorpresa. Kontrola, oraingo ikasleek esaten duten bezala. Zer ziren zirgariak? Eta zama-ketariak? Neronek, *zero patatero* neukake.

Lehenengo solairura igoak gara dagoe-neko. XIX. mende amaieran eta XX. mende hasieran itsasontziekin lotutako lanak ugariak ziren emakumeen artean. Euskal kostaldean itsasoarekin estuki lotutako ogibideak zituzten emakumeek, eta ez ziren soilik sare konpontzaileak edo kontserba lantegietako beharginak. Batelariak ziren, esaterako. Pasaia-koak ezagunenak, ziur asko. Hainbat lan egiten zituzten. Esaterako, Pasaia iritsita-ko kanpotarrak itsas ondotik pasieran eramaten ageri dira koadro batean. Baina ez zen hura zehazki haien betebeharra. Gehientsuenetan merkantziak itsasontzietatik porturaino eramaten zituzten. Batzuetan itsasontziei ere laguntzen zieten portuan sartzen edo ateratzen. Eta, askotan, beraien artean, libertimendu gisa, estropadak egiten zituzten.

XIX. mendean ospe handia eskuratu zuten eta lehenago frantsesen kontrako

Gehiengoaren imajinarioan emakumeak sare-konpontzaileak edota arrain saltzaileak izan dira, baina itsasoaren bueltan askotariko lanak egin dituzte. Esaterako, batelariak izan dira, Pasaia-ko oso ezagunak.

Juan Carlos RUIZ | ARGAZKI PRESS



batailan borroka egindakoak ere baziren. Felipe II.a etorri zenean, batelarien estropada bat ikusi zuen eta Madrilera eramana nahi izan zituen, baina beraiek ez zuten joan nahi izan.

Beste zonalde batzuetan, adibidez, gabarrera gisa ezagutu izan ziren, Zumaia inguruetan-eta, baina batelaren lan berbera egiten zuten; garraio zubi ziren portura gehiago gerturatu ezin zuten itsasontzien zamak lehorreratzeko.

Beste bitxikeria bat, lehorrekoontzat. XVIII. mendean, Caracastik ekartzen zen kakaoa Pasaiaiko portura eta batelariak bokaletik kanpora ateratzen ziren. Mari-nelek kakao zaku batzuk askatzen zituzten eta hauek gero estraperloan saltzen.

Beste ofizio bat, zirgariena. Zirga da, hain zuzen, ontziak arrastaka eramateko erabiltzen zuten soka luzea. Zirgariak ziren, zamaketariekin batera, Bilboko portuan lan egiten zuten emakumezkoen bi kolektiboak. Ibaiak zonalde batzuetan ez zuen nahikoa altuerarik eta, hartara, itsasontzi askok ezin izaten zuten aurrerago joan. Beraz, barruan zeramatzen merkantziak gabarra batzuen gainean jartzen ziren eta emakumeek zirgatik tira eginda eramaten zituzten ibai ertzetik helmugaraino. Langile gehienak emakumeak baziren ere, haien artean egoten zen gizonik, gehientsuenak adinduak edota zamaketari gisa aritzeko dagoeneko gaitasun nahikorik ez zutenak.

EMAKUMEA, ESKULAN MERKEA

Zertarako ordea emakumeak halako lanetarako, ibai ertzetik idi eta astoek ere gauza bera egin bazezaketen? Erantzun erraza du galderak. Merkeagoa zen emakumeak kontratatzea animaliak erostea baino. Zamaketariekin gauza bera. Oso baldintza gogorretan bizi ziren ofizioko emakumeak. Hirugarren bitxikeria bat. Donostiako Kontxako badia zamaketarien gune izandakoa da XIX. mendean. Hainbat etxola zeuden eta emakumeak bakailaoarekin lanean aritzen ziren. Arrainak itsasontzitik jaitsi, gatzetan on-

«Emakumea eta itsasoa» erakusketa zabalik egongo da Donostiako Untzi Museoan azaroaren 19ra arte. Hainbat ataletan banatuta dago, klasikoetatik gaur egunerako bidea egin arte

Erakusketaren bueltan hainbat ekimen antolatu dira hurrengo hilabeteetarako. Maiatzean, esaterako, erakusketako diseinu grafikoa egin duen Elena Odriozola ilustratzaileak tailer bat zuzenduko du



Historian barna emakumeak lan asko eta oso desberdinak egin ditu itsasoaren bueltan, nahiz eta egunotan ofizio horietako gutxi batzuk baino ez diren ezagutzen. Donostiako Untzi Museoan zabaldu den erakusketak historiaren argazki zabala eskaintzen du. Juan Carlos RUIZ | ARGAZKI PRESS

du eta bildu egiten zituzten salmentan jartzeko.

Baina zertan lan egiten zuten zamaketariek? Ubitarte inguruetako irudi baltzuk biltzen ditu Untzi Museoko erakusketak. Zamaketari bakoitzak otarre bat eramaten zuen –norberarena izan zitekeen edo kontratatutakoak emandakoa– eta saskiarekin egindako bidaia bakoitzagatik ordaintzen zitzairen. Baziren maila desberdinak gainera. Bakailaoa deskargatzen aritzen zirenek irabazten zuten

gehien. Ikatzarekin jarduten zutenak ere bazeuden eta, nahiz eta esfortzu handiagoko lana izan, dezente gutxiago ordaintzen zitzairen. Bidaia bakoitzeko txapa bat ematen zien arduradunak eta eguna amaitzean txapa horien arabera jorrala jasotzen zuten.

Gizonezko zamaketariak sindikatuen barruan bazeuden ere, emakumeek ez zuten inolako lan eskubiderik izan. Hainbat saiakera egin ziren, baina ez zen deus lortu. Oso bizi baldintza gogorreko lanbi-





dea zen gainera. Esaten zenez, emakume askok ahal zen lekuan lo egiten zuten eta haur txikiak zituztenek arroken artean uzten zituzten seme-alabak beraiek lan egiten zuten bitartean. Askok alkoholaren munduan aritutakoak ziren; bazterkeria handiko lanbidea zen. Garaiko egunkari batzuen arabera, gizonezko itxura zuten askok. Uneko neskato eta emakume burgesekin konparatzen saiatuz gero, zerikusirik ez zuten, noski.

Arrantza mundua erromantizismoz begiratzeko moduko ofizioa da, denborak desagertzearen edo gutxienez asko murriztearen arriskutik gertu jarri baitu tamalez euskal kostaldearen sinbolo eta bizimodu nagusi izan den ogibidea. Hemen agian azterketak edo kontrolak ez ninduke hain hankamotz harrapatuko lehorreko belar handitako kale ume naizen hau. Baina ez nuke galdera guztiak erantzuten jakingo. Nork ikusi du itsaskilari-rik euskal kostaldean? Ba norbaitek iku-

siko zituen zeren egon, egon ziren, eta egon, oraindik ere badaude. Hondarribia inguruan ikus daitezke. Baina gutxi. Baimenak behar dira lanean aritzeko eta hondarrak ere egoera onean behar du egon.

SARDINA FRESKUE!

Kontserbagileak. Hegaluzea eta antxoak. Oliotan eta gatzetan ondutako produktuak. Kontserba-industrian emakumea izan da jaun eta jabe. Ondarroako kasua aipa daiteke.

Portuari lotuta egon izan da beti emakumea. Sareak konpontzen, edo hegaluzeak almazenean sartzen. Pisuzko lanak denak. Bentariak ere baziren. Donostiako portuko azkena Begitxuri izan zen. Oposizio modukoak egin behar izaten zituzten gainera, kofradiek ordaintzen baitzuten soldataren zati bat. Matematikako oinarritzko arauak jakin behar zituzten eta belarri fina izan, itsasontzia lehorreratzeko dena prest izan zezaten. Zein zen haien lana? Itsasontziko pisonerak eguneko arrantzaren lagin bat ematen zion bentariari eta honek maioristari erakutsi eta ikusitako horren arabera erosten zuen itsasontziko zama guztia prezio jakin batean. Irabazien zati bana bentariarentzat eta pisonerarentzat izaten ziren eta beste guztia kapitainaren eta arrantzaleen artean banatzen zen, adostutakoaren arabera.

Baina inon irudi ezagunik bada, Santurtziko inguruetan sortu zen sardinerarena


izan da. Portuan arraina hartu eta salmentara abiatzen ziren. Oinez. Oinutsik. Oinetakorik gabe egiten zuten barrualderanzko bidea. Eta ez nolanahikoa. Hogei kilometro baino gehiago ibiltzen ziren berrietako batzuk egunero. Kultura herrikoian sardinerak oso pertsonaia ezagunak izan dira. Donostian, esaterako, 30eko hamarkadan arrain saltzaile onenaren lehiaketa antolatu zuten Konstituzio Plazan, ea nork zeukan grazia handiena arraina saltzerako orduan.

ITSASOAREN ZITALKERIA, OSO GERTUTIK

Itsasoko ezbeharren sortzaile eta errudun gisa hartu izan dira urteetan emakumeak, boteredun izaki zital bezala ikusi izan dira kultura askotan, baina errealitateak maiz erakutsi du emakumeak izan direla itsasoaren zitalkeria gertutik bizi izan dutenak. Itsasoak marinel asko irentsi ditu eta emakume ugari bakarrik egin behar izan dute aurrera euren familiekin. Bermeon 1912an izandako galerna da euskal historia garaikidearen gertaerarik larrienetako bat. Ehun arrantzale inguru hil ziren orduko hartan. Eta bitxikeria bat gehiago. Laugarrena. Garai hartan ezkontza komunalak egiten ziren Bermeon, egun berean hainbat bikote ezkontzen ziren. Galernaren ondorengo egunetarako halako ezkontza masibo bat zegoen aurreikusita. 57 ziren ezkontzera prestatutako bikoteak, baina bertan behera geratu zen hitzordua. Soilik 6-7 bikote batu ahal izango ziren. Gainontzekoak itsasoa galdu ziren betiko.

XX. mendean, ordea, itsasoaren irudiak aldaketa sakonik izan zuen, bai itxuran behintzat. Ez zen soilik lanerako eremu izango aurrerantzean eta burgesierentzat gune erakargarri bihurtuko zen. Turismoa eta itsas bainuen onurak azkar zabalduko ziren lehenengo hamarkadetan. Medikuntza higienista goraka joan zen urte haietan, itsasoko bainuak oso ondo ikusita zeuden eta bainuetxeetako kulturekin lotzen ziren maiz.

Kirolerako eremu ere bihurtu da itsasoa. Eta emakumeak horren parte izan dira, nahiz eta bere presentzia oso mugatua izan den. Izan ziren emakume aitzindari batzuk eremu horretan ere. Azken bitxikeria bat, hau lehorrekoontzat eta kostaldekoontzat. Agatha Christie idazle britainiarra izan zen horietako bat. Surfa praktikatzeko hasi zen lehenengo emakumeen artean egon zen, Hawaiiko natiboei egiten zutena imitatzen hasi baitzen kirol horretan sartzen. XX. mendeko 20ko hamarkadan izan zen. Eta ordutik, zenbat gauza gertatu den... itsasoan eta itsasotik kanpo.





Beñat Gaztelumendi
Bertsolaria

Iparraldeko estazioa

Exekutibo bat maleta beltzarekin eta bizkarra okertzeraino betetako bi motxila daramatzaten gazteak; emakume bat egunkaria irakurtzen andeneko burdinazko aulki izoztuan eta agure bat arkatza hartuta gurutzegramak egin eta egin koaderno urdin batean, disimuluan eta inor begira ez daukala ziurtatu ondoren azkeneko orriko emaitzak tar- teka begiratzuz. Hori da normaltasunaren itxura munduko bazter honetan. Eta erlojuetako orratzek aurrera egingo dute eta txartelak gainbegiratzeko mostradoreetan jendea gero eta gehiago hurbilduko zaio ilaran aurrean egokitu zaionari, gehia- go hurbiltzeak azkarrago joatea esan nahiko balu bezala. Tre- nak iritsi eta joan egingo dira eta titular tristeko egunkarien metak deseginez joango dira trenek eta orduak aurrera egin ahala.

Gaur arte. Gaur inauteriak dira Iparraldeko Estazioan ere; exekutiboaren gorbata ere moztur bihurtu da gaur, eta postontziz, pelikanoz, poli- ziaz, apaizez, mojar, bakeroz, mexikarrez, indioz, preso- z eta beste hamaika moztur jantzitako gazteak pilatu dira Tolosara eramango dituen trenaren zain. Eta nire lehen mozturaz pentsatzen hasi naiz; nola jantzi ginen “txo- riz”, txoriak eta hegaztiak be- reizten ez diren adin hartan; txantxangorriak eta putreak bil zitzakeen “txori” moztur zabal hura nola jantzi ge- nuen; nola itsatsi genizkien paperezko lumak gure kami- seta zuriei eta nola ibili gi- nen Añorgan barrena desfile- an otsaileko haize izoztuak gure zintzilikarioak dantza- razten zizkigun bitartean. Erakustea ezkutatzeko mod- u bat dela ikasi genuen inau- te- ri haietan.

Ez naiz akordatzeko noiz hasi ote ginen moztur behar- rean mozturak jantzen. Beharbada urdinez eta arro- saz jantzeari utzi genion adin horretan izango zen, edo gure izena esan orduko gure gurasoen ofizioa esate- ri utzi genionean bestela. Moztur edo moztur jantzi; azalaren barrutik mo- ztur, edo azalari paperez- ko lumak erantsi. Hortxe di-

ferentzia. Gogoan dut lehenengo desfile hartan nola haizeak eramane zituen gure paperezko lumak; nola kendu genizkion batak besteari zela apur batekin erantsitakoak. Inguruak esan- dakoa ginen orduan, inguru zena ginen gu: Añorga, fabrika, Europa, Reala, mutilak edo neskak, pilota edo futbola. Geroxe- go hasi ginen izena soilik ginela esaten, bereizketek hor jarrai- tu arren.

Nor naizen jakin nahian nongoa naizen ezkutatzeko, ustez- ko Beñat ezkertiar eta ameslaria europarra ere ez balitz bezala, zuria ere ez balitz bezala, gizona ere ez balitz be- zala. Nik hemen idazteak beste norbaitek ez duela idatzi- ko esan nahiko ez balu bezala. Erraza da boterea beste- gan ikustea, besteak seinalatzea, guk ere gure mikrofonotxorik, gure zutabetxorik, afalostean entzungo gaituen lagun kuadrillarik ez bagenu bezala.

Eta beste mozturroi begi- ra jarri naiz; kuadrillako batzuek diote izan nahiko genukeen horretaz moztur- tzen garela. Eta estaziora sartzen ikusten ditut exeku- tiboa eta polizia eta agente sekretua eta haien aldame- nean baita postontzia eta pelikanoa eta zakurra ere, eta zalantzan nago nork hautatzen dituen guk jant- zen ditugun mozturak; ez ote garen moztur moztur jantzi aurretik ere. Moztur tximeleta izan au- rretik ere ez ote den txime- leta, eta tximeleta bilakatu ondoren ez ote den zom- rro. Moztur moztur edo moztur moztur elkarren jantziei begira, oraindik ere elkarri paperez- ko lumak kentzen genizkien ume harrotu haiek bagina bezala.

Mundua ez baita estazio, mundua ez baita ez-leku. Bi- zi naizen lekuak markatu nau: paperezkoak ez diren lumak daramatzat zintzilik barruan ondo grapatuta; ize- na soilik esaten dudanean arren, diskurtsoak buruz ikasi ditudan arren. Ezkuta- tzea ez da erakusteko mod- u bat besterik, ordea. Moztur- rik jantzen ez dudanean, zertaz moztur tzen naiz? •



Ez dakit noiz hasi ginen moztur behar- rean mozturak jantzen.

J. URBE | ARP

{ koaderno } Laura Mintegi

Angela Davis, konpromisoa haragitua

Atzo, gaur eta bihar izango dugu Angela Davis gure artean. Luxu hutsa. Aitortu behar dut aspaldi ez nuela beraren berri eta Euskal Herrira datorrela jakin nuenean atoan pentsatu nuen, «ba urteak izan behar ditu emakumeak!». 72 urte egin ditu urtarilaren 26an. Bihotz gazteko emakume heldua.

Zaila da hitz gutxitan azaltzea 60ko hamarkadan Angelak nola gorpuztu zituen borroka eta aldarrikapena. Beltza eta emakumea izatearen kontzientziak eraman zuen Pantera Beltzen kausarekin bat egitera eta preso zeuden beltzak defendatzera. Bera ere kartzelatu zuten 18 hilabetez, erailketa salaketa faltsupean. *Free Angela* kanpaina hedatu zen mundu osoan, eta hainbat pertsonaiak babestu zuen garai hartan: Aretha Franklin, Yoko Ono, John Lennon, Nina Simone eta Rolling Stones taldea horien artean. 1972ko ekainean askatu zuten nazioarteko presioak bultzatuta. Bere ile kizkur eta harroak eta *Black is beautiful* aldarriak markatu zuten politikagintzan hasiberri ginenon belaunaldia.

Angelaren konpromisoa modu naturalean jaio zen bere familia zurien auzo batera bizitzera joan zenean. Lehen familia beltza zen auzoan, baina laster familia beltz gehiago joan ziren bertara bizitzera. Zuriek marra bat margotu zuten lurtean markatzeko nondik aurrera ezin zuten etxerik hartu familia beltzek. Apaiz beltz batek eta bere familiak zurien aldeko etxe bat erosi zuten, eta bonba batek leherrarazi zituen etxea, apaiza eta haren familia osoa. Angelak 5 urte zituen eta bainu bat hartzen ari zen une hartan.

Bonba hura izan zen askoren lehena. Ondoren leherketak kateatu ziren beltzen etxeetan, hainbeste leherketa ezen Dinamite Hill izenaz birbataillatu baitzuten auzoa. Hura izan zen hazia, hura izen zen Angelaren “eskola”. 1963an bonba batek erail zituen 14 urteko lau neskato beltz Ameriketako Estatu Batuetako Birmingham hiriko elizan, horietariko bat bere ahizpa Faniren lagun mina. 19 urte zituen Angelak, eta albistea Europan jaso zuen, aurreko urtean Frantziara joan baitzen estudiatzera. Parisen eta Alemanian ikasi ondoren, berriz itzuli zen Ameriketako Estatu Batuetara, eta 26 urte zituela filosofia katedradun sartu zen Kaliforniako Unibertsitatean. Handik

bota zuten komunista izatea egotzita, Ronald Reagan gobernadorearen ekimenez. Auzitara jo eta lortu zuen berriz onar zezatela irakasle gisa, kontratua amaitu artean.

Iraganari begiratzea baino, halere, interesgarriagoa da orainera begiratzea, Angela Davis ez zelako gelditu ainguratuta orain 45 urteko jazoeretan. Behin eta berriz berri du *Dynamite Hill* auzoan bereganatu zuen konpromisoa bere arrazarekin, bere klasearekin eta bere sexuarekin, bai eta preso dagoen populazioarekin ere. Konpromiso horrek eraman du *Critical Resistance* erakundea sortzera, Ameriketako Estatu Batuetako espetxe “industria” sistema salatu eta kartzelak desagertzea eskatzeko.

Angela Davisen liburu ezagunena (*“Women, Race and Class”*) konpara daiteke, bere arloan, Simone de Beauvoir beraren *“Le Deuxième Sexe”* liburu paradigmakoarekin. Aldarrikapen hutsetik harago, Davisek jaso, finkatu eta

Neoliberalismoaren estrategia da pertsona diseekzionatzea eta pentsaraztea borroka batek ez duela loturarik bestearekin. Gerta daiteke emakume zurien feminismoak ez ulertzea emakume beltzen aldarrikapena

teorizatzen du emakume kondizioaz, beltzen bazterketaz eta sozialismoaren idearioaz, eta ez du egiten konpartimentu estankorik hiru borroka horien artean, ez baitago bata bestearengandik bereizterik. Neoliberalismoaren estrategia da, hain zuzen, pertsona diseekzionatzea eta pentsaraztea borroka batek ez duela loturarik bestearekin. Horrela gerta daiteke emakume zurien feminismoak ez ulertzea emakume beltzen aldarrikapena, edo ezkerrek ez hartzea aintzat feminismoa, edo borroka antirrazistak bazter uztea gatazka soziala.

Hori da Angelaren ekarpena, integritasuna, konpromiso globala, zapalkuntzaren irakurketa osoa. Eta konpromiso horrek ekarri du Euskal Herrira kartzelaz eta emakumeaz mintzatzera, ezkerreko politikaz eta feminismoaz, konpromisoaz eta etikaz. Atzo, gaur eta bihar. Angela Davis. Euskal Herrian. •

«Gure haurrak ez dira okerreko gorputzean jaio; okerrak ez dira gorputzak, kanpoko begiradak baizik»

Badira zakila duten neskak eta alua duten mutilak. Ez dirudi ulertzen zaila, baina oso korapilatsua gertatzen zaio “zakila berdin gizona” eta “alua berdin emakumea” zutoin zurrunen gainean eraikitako jendarteari. Hain korapilatsua eta ezezaguna, kalkulatu ezineko mina sortzeko gai dela. Transexualitate egoeran dauden pertsonen suizidio saiakera tasa %41 ingurukoa da. Bistartzen ari den errealitatea da, urte luzez ezkutuegi gorde dena eta modu aldrebesean ulertu. Aste honetan bertan jakin da transexualitate egoeran dagoen 4 urteko ume baten izen aldaketa onartu duela Tolosako epaitegi batek, Gipuzkoan lehena.

Chrysallis Euskal Herriko adingabe transexualen familien elkarte hasi berria da, artean ez du urtea bete, eta aurretik dauka ibili beharreko bide luzea. Luzea eta itxaropentsua, egiteko asko dagoelako. EAEn 2012. urtean onartu zen transexualitatearen inguruko legea eta oraintxe pertsona transexualen arretarako gida integral batean ari dira lanean Chrysallisekin elkarlanean, bizitzaren arlo desberdinetan sor daitezkeen korapiloak askatzeko bidean jartze aldera. Esandakoa, luzea izanagatik, ibili beharreko bidea.

Elkarrizketa proposatu genizunean baiezkoa bidali zenigun bueltan, eta baita ekidin beharreko esamolde eta ideia okerraren zerrenda ere. Ezezagutzak min handia egin dezake, ezta? Konturatuta ginen komunikabideetan transexualitate egoeran dauden haurren gaia lantzen zenean, ezezagutza zela-eta, maiz esaten ziren gauzak ez zirela zuzenak eta, gainera, mingarriak zirela. Euskal Herrian elkarte iaizko martxoan eratu genuen, ez dugu urtea egin, eta Estatu espainolean Chrysallisek bi urte daramatza. Arlo askotan ari gara lanean, baina ikusi dugu bereziki garrantzitsua dela ezagutza haur hauen bizitzan bidelagun izateko. Eta errealitatea ezagutzeko hitzak oso garrantzitsuak

dira. Gure buruetan badira aurretik ezarritako zenbait ideia, eta errealitate honetara hurbiltzeko beharrezkoa da ideia okerrak guztiak desmuntatzea.

Egin dezagun desmuntatzeko ariketa hori.

Deseraiki beharreko oinarritzko ideia ondorengoa da: “zakila berdin mutila” eta “bulba berdine neska”. Eta ideia hori eskola liburuetan agertzen da, jendar-tean etengabe presente dago... eta deseraiki beharra dago. Errealitatearen behaketak sortzen duen sinplifikazio bat da hori. Mutil gehienek zakila dute eta neska gehienek bulba dute, eta horrek eramaten gaitu pentsatzera –eta hau sinplifikazio bat da– mutil guztiek dutela zakila, eta, neska guztiek, alua. Alegia, sinplifikazio horrek genitalak eta identitatea bat datozela pentsatzera garamatza. Gaur egun dauzkagun datuen arabera, 1.000 pertsonatik bat transexualitate egoeran egongo litza-teke. Ikerkuntza mailan gauzak ez daude argi, ikerketa zehatza-goak eta hobeak egin behar dira. Gehien aipatzen diren ikerketen arabera, 10.000 pertsonatik bat da. Baina ikerketa berriagoek eta errealitateak erakusten dute hori ez dela zuzena, eta segur aski 1.000 pertsonatik bat izango da zakila duen neska edo bulba duen mutila. Horregatik nahitaezkoa da ideia oker hori deseraikitzea. Hartara, elkartetik zabal-tzen dugun leloa honako da: “Badaude zakila duten neskak eta bulba duten mutilak”.

Deseraiki beharreko beste ideia bat: «Gorputz okerrean jaio-tako pertsonak. Mutiko baten gorputzean jaio-tako neska-toa (edo alderantziz)».

Gure kulturaren transexualitatea ulertzeko edota azaldu ahal izateko moduetatik datoz esamolde horiek. Baina egun daukagun ezagutzari esker, adierazpen horiek guztiak gainditu egiten ditugu, ez direlako zuzenak eta, gainera, ez dutelako ulertarazten zer den transexualitate egoera.

Gure haurrak ez dira okerreko gorputzean jaio, gure neskak

neskak dira, eta, gure mutilak, mutilak. Gure haurrak bere gorputzean daude eta gorputzak ezin dira okerrekoak izan. Okerrak ez dira gorputzak, okerrak kanpoko begiradak dira.

«Neskatoa izan nahi duen mutikoa (edo alderantziz)».

Nire alaba ez da neska izan nahi duen mutila. Bera neska da, eta nahi duen eta behar duen bakarra da gainontzekook ere halaxe ikustea, neska bat bezala. Gainera, ez da aukeratu edo erabaki duen zerbait, bera horrelakoa da, eta hori aniztasunaren baitan kokatzen da. Beren gorputza berezia da, guztion gorputza berezia den bezala. Ez daude bi gorputz berdine.

Diozunez okerrak ez dira gorputzak, okerrak kanpoko begiradak dira.

Pentsa, duela hamarkada batzuk ezkerrek zirenei esaten zitzaie-n kapritxo bat zela, ohitura txar bat, deskubritu zuten arte ezker-rra edo eskuina izatea burmuinaren lateralizazio kontuekin lotuta zegoela. Alegia, ezin duzula erabaki ezkerreko eskuina zaren, baldin eta ez baduzu zure gorputza behartzen.

Homosexualitatearekin ere berdintsua gertatu zen XX. mendean; lehendabizi bizio bezala hartzen zen, bekatu bezala, gaixotasun bezala... Eta gehiago erakartzen banaute mutilek edo gehiago erakartzen banaute neskek, ez da nik horrela erabaki dudalako, ni horrelakoa naitzelako baizik. Aniztasunaren adierazpen bat baino ez da. Eta aniztasun horren baitan, badira zakila duten neskak eta alua duten mutilak.

Begirada okerrak, ezezagutza, ezin ulertua... sufrimendu asko eragiten duen egoera da, ezta?

Aurreko hamarkadetan –oraindik ere akaso, nahiz eta gauzak aldatzen ari diren– desira homosexuala zuten pertsona askok bere orientazioa ezkutatzaren zue eta ahal zuen bezala bizi zuten bere bizitza, horrek dakarren sufrimenduarekin. Pertsona transexualen kasuan ez da desira ukatzen dena, identitatea

AINGERU MAYOR

SEXOLOGOA ETA CHRYSALLIS EUSKAL HERRIA ELKARTEKO LEHENDAKARIA

Jaiotzeko orduan genitalei begira zehazten da pertsonen sexu identitatea.

Batzuetan, baina, inposatutakoa eta benetako identitatea ez datoz bat.

Transexualitate egoeran dauden adingabeen gurasoak bildu dira Chrysallis elkartearen, seme-alabei samurra ez den bidea egiten laguntzeko. Jendarteak ere badauka zeregina: begiratzeko modua aldatzea.

amagoia.mujika@gaur8.info



Argazkiak: Juan Carlos RUIZ | ARGAZKI PRESS



«Deseraiki
beharreko
oinarrizko ideia hau
da: 'zakila berdin
mutila' eta 'bulba
berdin neska'.
Errealitatearen
behaketak sortzen
duen sinplifikazio
bat da. Mutil
gehienek zakila
dute, eta, neska
gehienek, bulba.
Horrek eramaten
gaitu pentsatzera
mutil guztiek dutela
zakila, eta, neska
guztiek, alua.
Sinplifikazio horrek
genitalak eta
identitatea bat
datozela
pentsatzera
garamatza»

ko baina kanpotik beste bat esaten diotelako.

Bestetan, eta ikaragarria da, muturreko egoerak gertatzen dira, haurrak sentitzen baitu ezin duela izan bera dena bere genitalen ondorioz eta horiek anputatzera ere irits baitaiteke. Horrelako kasuak kontatzen dituzten gurasoak entzunda bihotza hausten zait. Egoera horrek, gainera, asko zail dezake gerora gorputz propioaren kudeaketa, bereziki genitalena.

Chrysallis elkarteak, esan duzunez, bi urte daramatza Estatu espainolean eta Euskal Herrian urtebete baino gutxiago. Hasi berriak zarete eta bide luzea dago aurretik, ezta?

Fenomeno berri baten aurrean gaude; azken urteotan Estatu espainolean –eta Mendebaldean esango nuke– bagara familiak gure haurren transexualitate egoera onartzen dugunak eta lagundu egiten diegunak. Hori lehen ez zen ematen, edo ez zen behintzat publikoki eta komunitate mailan ematen. Hau fenomeno berria da, oso interesgarria, eta ikertu egin beharko da zer emaitza ematen dituen. Gure haurrak izango dira lehen belaunaldia haurrak direnetik beren sexu identitatearekin biziko direnak, jaiotzaren orduan eman genien identitatearen desberdina den identitatearekin. Orain artean helduaroan beren sexu identitatearekin bizi diren pertsona transexualen erreferentzia baino ez dugu izan. Pertsona horien gehiengoak esaten du haurtzaroan ezin izan zirela bizi direnaren arabera eta asko sufritu zutela. Horregatik da berria fenomeno hau.

Bestetik, beste berritasun bat da familia batzuek aukera izan dugula gure haurrei ez ezartzeko beren genitalen kontrako jarrerara, ez baitira bata edo bestea beren genitalen arabera. Oso interesgarria da, beren identitatearekin bizi diren eta beren genitalekin inolako arazorik ez duten haurrak ikusten ari garelako. Ikusiko dugu beren bizitzaren garapenean baldintza horiek zer-nolako eragina duten, baina pentsatzekoa da aurreko

baizik. Eta sexu identitatearen gainean eraikitzen dugu pertsonaren izate osoa. Beraz, gizona izan eta emakume bezala bizitzea, edo emakumea izan eta gizon bezala bizitzea –eta benetan zarena ezkutatu behar izatea–, kalkulatu ezineko sufri-mendua da. Gure pertsonalitatea beti eraikitzen dugu besteen

begiradaren ispiluan. Ni neska banaiz eta inork ez banau ikusten neska bezala, benetan ez naute ikusten. Eta ikusia ez izatea, besteek ikusten ez zaituztela bizitzea, izugarri latza da izaera eraikitze orduan. Hori kaiola bat da, ez zaituztelako ikusten eta, gainera, ez dizutela-ko uzten benetan zarena izaten.

Noiz adierazten du haurrak jaio zenean genitalei begira ezarri zioten sexua ez dela berea?

Haurrak bere identitatea adierazten hasten dira hitz egiten hasten direnean, 2 urte inguruan. Kasu gehienetan, direna adierazten dutenean, esaten zaie ezin direla izan mutil alua

dutelako edo ezin direla izan neska zakila dutelako. Mezua garbia da: ezin duzu izan benetan zarena zure genitalengatik, hanka artean daukazu nagatik. Mezu hori behin eta berriz errepikatzen da etxean, eskolan, jendartean, telebistan... Ondorioz, haurrak ez du ulertzen zer den, berak gauza bat sentitzen duela-

belaunaldietako pertsona transexualen bizipen oso desberdinak izango dituztela. Eta pentsatzekoa da beren gorputzaren kudeaketa ere desberdina izango dela. Beste gauza bat da gure haurrek beren gorputzarekin zer egin nahiko duten, baina guk gure partetik ahal dugun guztia jarriko dugu haiek beren gorputza den bezalakoa maita dezaten.

«Gure haurrek erabakiko dute beren gorputzekin zer egingo duten». Jendarte honetan ez da samurra rol estetikoaren mandatuak ihes egitea.

Jendartea kontu estetikoekin gero eta zorrotzagoa da. Diskurtso sozialean aniztasuna baloratu beharreko gauza bat bezala ari da zabaltzen, badaude horren aldeko diskurtsoak, baina, era berean, edertasun estetikoaren aldetik gero eta inposizio zorrotzagoak daude; emakumeen gorputzak nolakoak eta gizonezkoenak nolakoak izan behar duten zorrotz markatzen dutenak. Zentzu horretan, aurrera joan beharrean eta ikuskera zabaltzeko beharrean, ixten ari gara.

Esaterako, emakumeek ezin dute ilerik eduki inon, ez bada buruan. Aurpegian, batere ez. Jokaldia oso maltzurra da. Ezaugarri maskulinoak eta femeninoak markatzen dira eta ezaugarri maioritario horiek inposatu egiten dira. Adibidez, emakume gehienek gizon gehienek baino ile gutxiago daukate aurpegian. Beraz, inposatzen da emakumeek ezin dutela ilerik izan aurpegian. Eta badira aurpegian ilea duten emakumeak. Bularrekin, berdin, zorrotz markatzen da nolakoak izan behar duten, baina emakume guztiek ez dituzte horrelako bularrak, ezta? Eta non geratzen da aniztasuna?

Transexualitate egoeran dauden haurrek rol zorrotz horietan sartzen nahiko lan.

Gure umek hori guztia eztan darazten dute. Zakila duen neska batek edo bulba duen mutiko batek inposizio horien oinarrian dagoen genitalen logika hankaz gora jartzen du. Inposi-



zio horiek ez baitira sortzen emakume identitatearen edota gizon identitatearen gainean, genitalen gainean baizik. Eta gizarteari sekulako kontraesanak sortzen dizkio.

Kontraesanok egoera askotan azalarazten dira, ezta?

Kontraesanok leku askotan ematen dira, bai, kasik guztietan esango nuke. Aniztasunaren alde egiten duten mugimendu sozialen eta hausnarketa politikoaren baitan ere kontraesan handia sortzen dute gure haurrek. Rol inposizioaren aurka borrokan ari diren mugimenduen binarismoa hautsi egin behar dela esaten dute. Eta mugimendu horietan gure haurrek planteamendu asko hausten dituzte. Bada diskurtso bat esaten duena generoa eraiki egiten den zerbait dela, eta gure haurrek ideia hori goitik behera puskatu egiten dute. Gure etxean gure alaba eraiki genuen mutil bat bezala –oso modu askean, hala ere– eta bere identitateak hautsi egin zuen hori, gaintitu egin zuen eraikuntza. Horrek ez du esan nahi sozialki ez direnik eraikitzen generoaren inguruko gauza asko; baina identitatea ez da eraikitzen, hori barrutik dator.

Eta hausten dute, era berean, mutilak eta neskak ez direla existitzen esaten dutenen diskurtsoa, hirugarren sexu bat egon daitekeela esaten dutenena. Gure haurrek ez dute esaten hirugarren genero batekoak direnik, ez neska ez mutila. Gure haurrek garbi esaten dute “ez naiz mutila, neska naiz”, edo alderantziz. Gure haurrek garbi esaten digute neskak edo mutilak diren, hori bai, hortik aurrera utz diezagutela emakume edo gizon izaten nahi dugun moduan. Ez diezagutela inposatu emakume edo gizon izateko modua eta utz diezagutela maitatzen nahi dugun moduan.

Intersexualitatearen kontzeptua ere hor dago.

Intersexualitatea gaur egun askotan aipatzen da genital anbiguoak dituzten haurrei buruz hitz egiteko. Eta pena bat da hori definitzeko erabiltzea, horrekin berriro sexualitatea genitalen jartzen delako.

Sexologian, berriz, intersexualitatearen kontzeptuak mende bat inguru darama zirkulazioan eta oso emankorra da aukera ematen digulako errealtatea osotasunean ikusteko.

Kontzeptu horrek adierazten du pertsona orok bi sexuetakoz ezaugarriak ditugula, maskulinoak eta femeninoak. Bi sexu zergatik? Ikusten dugulako gure jendartean eta baita munduko beste jendarte batzuetan ere munduan egoteko bi modu desberdinekin identifikatzen garela gizakiak. Nahi duzun hitzekin jarrita.

Denok ditugu ezaugarri maskulinoak eta femeninoak –nagusiki gizonezkoekin edo nagusiki emakumezkoekin lotzen diren ezaugarriez ari naiz, ez da kontu esentzialista bat–, finean, dena neurri kontua da. Identitatea soilik singularrean eta lehen pertsonan adierazten da: ni naiz. Sexu identitatea lehen pertsonan adierazten da eta oso lotuta dago hizkuntzarekin. Oso lotuta dago pentsamenduarekin eta autokontzientzia bat da.

Kontzeptuak aparte, gatozen egunerokora. Transexualitate egoeran dagoen haurraren gurasoek zer egin dezakete?

Prozesu pertsonala oso indartsua da. Guraso bezala, denok dauzkagun eskema horiek guztiak hautsi egin behar ditugu. Horretarako, nahitaezkoa da in-

formazioa eta ezagutza. Gaur egun, zorionez, beste gurasoen babesa ere hor dago. Lehen gauza gure haurrak esaten diguna entzutea da eta berak esaten duena horrela dela jabetzea. Ez da erraza, askotan pentsatzen baita oraindik oso txikia dela, gero akaso aldatuko dela... Tira, une honetan zure haurra gauza bat esaten ari zaizu, entzun nahi diozu? Bai ala ez?

Eta haurrak ez entzuteko joera orokorra da, gainera. Badira beste haur batzuk, transexualitate egoeran ez daudenak, mutilak direnak eta printzesen soinekoak nahi dituztenak; edo azazkalak margotu nahi dituztenak; edo futbolekin jokatu nahi duten neskak eta zuhaitzetara igo nahi dutenak. Jendarte bezala ez al gara gai izango haur horiek zoriontsu izaten uzteko? Ze tristea, ezta?

Transexualitate egoeran dauden haurren kasuan lehen gauza entzutea da, gure hitz jarria eta gure pentsamendu jarria eten eta haurra entzun: “zer esan dit?”. Hortik aurrera, bide-lagun izatea da gakoa. Eskema zaharrak eta baliorik ez dutenak baztertu, eta gure seme-alaben bide-lagun izan.

«Transexualitate egoeran dauden haurren kasuan, une batean beharrezkoa izango da gure begirada aldatzea. Hau da, mutil bat ikusten duzun tokian neska bat ikustea, edo alderantziz. Urrats oso zaila da, baina funtsezkoa»



Chrysallis Euskal Herria elkarteko kideak Nafarroako Parlamentuko presidente Ainhoa Aznarezekin bildu ziren duela aste batzuk. Transexualitate egoeran dauden haurren gaia gaurkotasun handia hartzen ari da.

Iñigo URIZ | ARGAZKI PRESS

«Gure txikiak, bi urtetan zehar, goizero-goizero negar egiten zuen ispiluaren aurrean. Gizartearen begiradaren aurrean neska bat zela adierazteko beharra zuen, baina denok mutil bezala ikusten genuen, nahiz eta soinekoak jantzi»

Nola izan bidelagun?

Niretzat bidelagun izatea alboan joatea da; ez aurrean bidea zein den seinalatuz, kasik hobeto urrats bat atzerago eskuak zabalik, bere bidea egin dezan atzean gurasoen babesa sentitzen duela. Hori oso abstraktua izan daiteke. Egunerokoan, zer? Olentzerori panpina bat eskatzen badio, zergatik ez dio ekarriko? Eta esaten badu ilea luzea nahi duela, zergatik inposatu ilea moztea?

Bidelagun izate horretan bada eman beharreko urrats handi bat. Transexualitate egoeran dauden haurren kasuan, une batean beharrezkoa da gure begirada aldatzea. Hau da, mutil bat ikusten duzun tokian neska bat ikustea, edo alderantziz.

Zuenean eman duzue urratsa.

Gure kasuan, nik uste nuen mutil bat nuela, eta mutil bezala ikusten nuen bitartean ez nuen bera ikusten. Jauzia ematea, mutil bat ikustetik neska bat ikustera pasatzea, funtsezkoa izan da. Gure etxean beti utzi izan diogu nahi duen bezala janzten, nahi duen jostailuekin jolasten... Mutil bat ikusten genuenean ere soinekoak janzten zituen. Garai hartan jendartearen begirada zentsuratzaila jasan behar izan genuen soinekoak eta diademak janzten zituen eta mototsak zituen mutil bat izateagatik. Guk gizarteari aurre egin behar izan genion garai hartan semea zela uste genuena nahi

zuen bezala janzten zelako. Zergatik inposatu behar zion inork nola jantzi eta zertara jolastu?

Baina ez zen nahikoa. Gure txikiak, bi urtetan zehar, goizero-goizero negar egiten zuen ispiluaren aurrean. Berak gizartearen begiradaren aurrean neska bat zela adierazteko beharra zuen, baina denok mutil bezala ikusten genuen, nahiz eta soinekoak jantzi.

Lau urteko prozesu luze baten ondoren, azkenean neska bat genuela konturatu ginen, berak beti esan izan zuen bezala, eta begirada aldatu genuen. Inguruko guztiei jakinarazi genien. Nire emaztea auzoko dendetara joan zen eta garbi hitz egin zien: «Gure alabak zakila dauka eta neska bat da». Horrek, noski, krakateko izugarria sortu zien guztiei. Hori pasa eta bi aste baino lehenago gure alabak ispiluari begiratzeari utzi zion eta aspaldi jantzi gabeko arropak janzten hasi zen. Berak dagoeneko ez zuen adierazi behar besteen begietara zer zen arroparen bidez, eta lasaitu egin zen. Berak dagoeneko ez du egunero borrokatu behar bestek garbi ikus dezaten bere identitatea.

Ez dirudi prozesu samurra begirada aldatzea.

Oso zaila da; sexologiak berak ikertzen duen gaia da. Gure burmuinak pertsona bat neska edo mutil bezala etiketatzen duene-

an, oso zaila da aldatzea. Eta ez da borondatez egiten dugun zerbait, kaletik goazela gure burmuinak etengabe egiten du pertsonak etiketatzeko ariketa hori. Eta burmuinak identifikatzen ez duen norbait topatzen baduzu, nahiz eta zuk nahi ez izan, burmuina martxan jartzen da detaileak topatu nahian; bularrak, ileak non, zintzur-korapiloa...

Nik hori ez dut txartzat hartzen, txartzat hartzen dut emakume baldin bada gaizki tratatzea edo gizonezkoa bada soldata hobia izatea. Nik horren kontra borrokatuko dut.

Horregatik da zaila neska bezala etiketatu duzun haurra bat-batean mutil bezala ikustea. Denbora eta borondatea behar dira, ahalegina egin behar da. Prozesu horretan gurasoak eskuzabalak izan behar dugu gure buruarekin, denbora hartu eta ez zigortu gure burua ondo edo gaizki ari ote garen epaitzen.

Pentsatzekoa da elkartera gerturatzeko diren familiek ikuskerak zabal samarra dutela. Bestelakoak ere izango dira, ezta?

Guk kalkulatzeko dugu Hego Euskal Herrian hemezortzi urtez azpiko 400 haur eta gazte daudela transexualitate egoeran. Elkartean uneotan hogei familia gaude eta beste hamar hogei familia ezagutzen ditugu. Asko jota, guztira 40 familia. Horrek esan nahi du 300 familiatik gora daudela -eta

horietako batzuk seguru beren prozesua egiten ari direla-, haurrek adierazten dutena ez dutena ulertzen, beren seme-alabak ez dituztenak entzuten. Eta pentsatzekoa da haur horiek ez direla batere egoera samurra bizitzen ari.

Eskoletan ere lan egin behar.

Elkartea sortu genuenetik trantsitua egiten ari diren haurren eskolekin lanean ari gara. Trantsitua esaten diogu gizartearen aurrean mutil bezala agertzen zen haurra neska bezala agertzen hastea -edo alderantziz-, bere identitatearekin bat. Eta trantsitua egiterakoan, toki garrantzitsua da eskola.

Chrysallis elkartetik formakuntza saioak egin ditugu irakasleekin eta gurasoekin. EAEn badago zerbitzu publiko bat, Berdindu Eskola, egoera hauek kudeatzen dituen eta une honetan elkarlanean ari gara.

Eskoletan egin ditugun saioetan garbi ikusi dugu irakasleek beharra dutela informazioa izateko eta asko eskertu dituzte saioak, ikasteko gogoz daude. Hala ere, saio horiek eskas gertzen dira eta berriki sortu dugu trantsitua egin duten eskola horien arteko sare bat informazioa parteka dezaten. Nola kudeatu soinketa orduak eta aldagelak... eta horrelako kontuak. Material didaktikoa falta da, eta horretan ari gara lanean. Asko dago egiteko, baina ari gara.



ENEK

Egin txotx ekologikoari!

Sagardoa, barrenak freskatu eta buruak epeltzen dituen eda-bea, agian edaririk "euskaldunena", milaka urtetik da eza-guna gure lurraldean. Uste denez, erromatarren garaian ikasi zuten euskaldunek sagar-zukuaren hartzidurari etekina aterata eta denbora luzeagoz gorde zitekeen edaria lortzen. Sagarrondoek eta sagardoak izandako garrantziaz testigantza ematen dute foru eta lege zaharrek: esaterako, XVI. mendeko Gipuzkoan eta Bizkaian, heriotza zigorra zeukan bost frutadun sagarrondo moztzen zituenak.

XX. mendean bizitako krisiaren ondoren, egun euskal sagardogintzaren osasuna berriz ere ona dela esan daiteke. Azken hamarkadetan, gainera, sagardogintza ekologikoa bere lekua eginez joan da. Egun, bederatzi marka eta zazpi sagardotegik dute ENEKren ziurtagiri ekologikoa.


Baina, zerk egiten du sagardo bat ekologiko? Bada, sagarrak, noski. Itziarko Txindurri Iturri sagardotegiko Alazne Arrutik zehazten duenez, sagastiaren kudeaketan dago gakoa. «Frutazaintza ekologikoaren gakoa behaketa da. Lurraren beharrak zeintzuk diren ezagutzea, zuhaitzak zer behar duen aztertzea, bariatateen eskakizunak ezagutzea, sagastiaren kokapenak jar ditzakeen mugak kontuan izatea... Behetik gorantz egin beharreko lana da, lurretik zuhaitzera. Guk apenas egiten dugun tratamendurik, lurra ongarriztatu eta kareztatzeaz aparte. Urtearen arabera moldatu behar izaten da maneia, baina behaketa taxuz eginda errazago egin daiteke urteko plangintza, ager daitezkeen arazoak aurreikusi eta beharrezkoak ez diren lanak ekidinez».

Sagasti ekologikoen berezitasun bat belarra da. Jakina denez, ekoizpen ekologikoan ezin da herbizidarik erabili. Substantzia kimiko horiek, belarra hiltzeaz gain, lurreko mikroorganismoak ere hiltzen dituzte, ekosistemaren oreka kaltetuz. Horrenbestez, modu ezberdinak daude belarra labor mantentzeko sagarra bildu behar den sa-

soian. Txindurri Iturri, sagardogintzaz gain abeltzaintza ere egiten dutenez, belarra moztzen dute ganaduaren bazka lez erabiltzeko. Usurbilgo Arratzain sagardotegian, berriz, Aitor Lizasok dio belarraren kudeaketak ez diola burukominik sortzen. «Urtean hiruzpalau aldiz belarra moztearekin nahikoa da. Ez da herbizidarik behar. Lanorduak eskatzen ditu, bai, baina nik bizitza duen sagasti bat nahi dut. Tratamenduak ere apenas egiten ditugun. Eta hori sagastian igartzen da: sekulako bizitza dago, kilker piloa, matxinsaltoak, zatitsuak...». Aramaioko Iturrieta sagardotegian, aldiz, belarraren kudeaketarako poniak eta ardiak baliatzen dituzte, «era horretan, belarra mozteaz gain, sagastia ongarritu ere egiten da».

SAGASTIAREN EKOIZPEN MAILA

Juanjo Peciña sagardogile aramaioarra pozik dago ekoizpen ekologikoarekin. «Nire ustez, errazagoa da. Gu behintzat sagastia ahal den gutxien ukitzen saiatzen gara; tratamenduak asko mugatzen ditugu, bakarrik ezinbestekoak direnean eginez. Argi dago ekologikoan ere sagastiari ekoizpen maila jakin bat eskatu behar zaiola, baina aintzat hartuta bere mugak dauzkala eta horiek errespetatu behar direla». Eredu ekologikoan badaude izurri eta gaixotasunak tratatzeko aukerak, eta naturatik eratorritako produktuak dira kasu guztietan. Baina hiru sagardogileek argitzen dute momentu egokian aplikatu behar direla eraginkorrak izan daitezen, bestela alperreko lana eta gastua izan baitaitezke. «Baloratu behar izaten da tratamenduaren egokitasuna. Ez da gauza bera sagardotarako sagarra edo mahai sagarra ekoiztea. Gure kasuan, ez du horrenbesteko garrantzirik frutak itxura ederra izatea. Noski, horrek ez du esan nahi sagardoa egiteko edozein sagarrek balio duenik!». Alegia, kalitatezko sagarra, heldutasun puntu egokian batua, osasuntsua eta garbia da sagardo ona lortzeko lehen baldintza. Baldintzatzaile horiekin sagar ekologikoek asko irabazia daukate.



ENEK

Bistan da prozesua ere zaindu egin behar dela, eta horretan sagardotegi ekologikoak beste edozein sagardotegi bezalakoak dira. Betiko teknikak egungo ezagutzara moldatu dira, jakina da instalazioen garbitasunak azken produktuan izan dezakeen eragina, eta gauza horiek milimetrorra zaintzen dituzte. Hala izanda ere, gure sagardogile ekologiko hauen testigantzetan badago berezitasunik "ohiko" prozesuari dagokionez: ez dute sulfitorik gehitu edo bestelako gehigarriak erabiltzen. Diotenez, sagarrak badakartza sagardoa egiteko behar diren lehengai guztiak.

SAGARDO EKOLOGIKOA, GOI MAILAKO SAGARDOA

Hernaniko Iparragirre sagardotegian Arantza Eguzkizak bere sagastien zati bat ekologikoki lantzen du, «ekoizpen mailan igartzen da aldea, baina, kalitateari dagokionez, oso gustura gaude». Profesionaltasunaren gorazarrea egiten du Arantzak, norberaren lanari duen balio eman behar zaiola aldarrikatuz. «Nire ustez sagardo ekologikoa goi mailako sagardo bat da, eta, hortaz, patxadazkoa izan behar du. Guk sagasti guztiak zaintzen ditugu, noski, bai-

na ekoizpen ekologikoaren ezaugarriengatik, sagasti horiek are gehiago zaintzen ditugu. Horrek eragina du bukaeran: egiten dugun sagardo ekologikoak, esaterako, txinparta berezia du. Gure gamako kuttuna da». Arantzak azpimarratzen du ere bertoko sagarra erabiltzearen garrantzia, «gure sagardogintzari orokorrean, eta eredu ekologikoari bereziki, koherentzia ematen dio bertoko fruta erabiltzeak».

Bitamina eta mineralen aberatsa, diuretiko, antioxidatzailez betea, gustagarria eta oso gurea. Euskal paisaiaren zati garrantzitsua da sagardoa. Txindurri Iturri (Itziar), Arratzain (Usurbil), Iturrieta (Aramaio), Iparragirre (Hernani), Unanue (Azpeitia), Oiharte (Zerain), Laneko (Gizaburuaga) eta Ekain (Zestoa) sagardo ekologikoen botilak zabaltzean, balio positibo horiek biderkatu egiten dira. EAEko sagardogile guztiak www.eneek.eus helbidean topa daitezke. Horrenbestez, egin txotx ekologikoari!

ENEK
Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura
Ekologikoaren Kontseilua

Atzerako ispilua

Antton Izagirre

Aspaldi erakutsi ziguten auto gidari onaren ohituren artean atzerako ispiluaren erabilera egokia zein garrantzitsua den. Ikasi genuen atzerako ispilua, atzeraka egiteko baino, aurrera zuzen eta segurtasunez egiteko beharrezkoagoa zela. Atzerako ispiluari begira, behar baino antentzio gehiago eman ez gero, aurrekoarekin talka egiteko arrisku handiegia legokeela.

Metaforak balio lezake Eusko Jaurlaritzak, Bake eta Bizikidetzak idazkariaren ahotan jarri duenari kontu hartzeko. Izan ere, ezker abertzaleak epaitegietan lotu berri duen akordioari erreparatu be-

har izan dionean, aurrera begira baino atzerako ispiluari jarri dio begirada. Hogeita hamar urte egin dio atzera oroimenak eta urte horietan antzekorik egin ez izana leporatu nahi izan dio ezker abertzaleari.

Egindako akordioa aurrera begira egin dagoela ukaezina da. Iragana atzean utzi eta inoiz gehiago “justiziaren” erabilera politiko interesatuak inor gehiago kartzelara eraman ez dezan bide bat irekitzera bideratua dagoenean, ez du Eusko Jaurlaritzak atzerako begirada hauspotzea baino burutapen hoberik izan.

Burutapen setatsua eta mingarria askorentzat, bizikidetzaren gidari on izan

nahi duen edonorentzat hanka sartze larria eta zoritxarrekoa. Bizikidetzak konfiantzak eta konplizitateak bilatzea eskatzen du, baina Eusko Jaurlaritzak oraingoan erakutsi duen talantea jostailua kendu dioten haur baten egoskorke-ria eta kasketatik gertuago dago, heldutasunak eskatzen duen ongi eginaren aitortzatik baino.

Gehiegi dira, bestela ere, ezker abertzalea konponketaren alde egiten ari den ahalegina zangotrabatzeko dauden interesak, Cuatro telebista espainiarra egiten ari den intoxikazio kanpaina lekuko, aurrera begira emandako urrats bakoitzeko Eusko Jaurlaritza ere jeloskor jokatzeko. •

#KorrikaPrekarioa

Andoni Egia

Elkartasuna haragizkoa izan, eta gure espazio konpartituetan adierazten dela ikasi zuten aspaldi gure aurrekoek. Aberastasuna gutxi batzuen eskuetan metatzeko asmatu zen krisi honek solidaritatea deuseztatzea helburu duen honetan, gizartearen desartikulazioa ematen ari da. Lehiakortasunean oinarritzen den jendarte berria eraikitzeko, ongizate estatua eraso eta defentsa kolektiborako ezinbestekoak diren sindikatuen eragin eremua murrizteko estrategiak orokortu dira. Horrela bada, deslokalizazio produktibo, azpikontratazio infinitu eta abarren bidez, prekariozazio existentziala nagusitu da jendartean. Pertsona, gutxi batzuen nahien eta beharren arabera erabiltzen den objektu hutsa bihurtzeraino ailegatu dena, ezinezona za-

balduz eta antsietatea orokortuz. Erabili eta botatzeko pertsonak; bata bestearen kontra, bata bestearengandik beldur.

Baina partida ez da oraindik bukatu. Davidek harri pare bat gordetzen ditu patrikan. Urte luzeetako nora eza gaingidatuz, lotura soziala ehuntzeko hari berriak josteari ekin, eta hortzak erakusteko irribarre berriak marraztu ditugu. Txantrean gelditu zen etxegabetze hartan bezala, edo Bilbo eta Bartzelona lotuko dituen #KorrikaPrekarioa ekimenean kasu, prekarietate indibidualizatuari, duintasun kolektiboarekin erantzun diezaiogun.

Otsailaren 17an hasita, Euskal Herria zeharkatuz Bartzelonara ailegatuko da Correscales bezala ezagutzen den aldarrikapen eta elkartasun ekimen erraldoia. Bost egunetan

atsedenik gabe korrika eginez, prekarietatearen kontrako borroka sustatzeko erresistentzia kutxa bat sortu nahi da Ekonomia Sozial Eraldatzailearen ikur den COOP57 kreditu kooperatiba erabiliz. Ehunka eragile, sindikatu eta alderdi batu dira elkarlanean dirua lortzeko, hitzaldiak eta ekintza ezberdinak antolatuzko, edo korrikalariekin batera, bidearen parte bat egiteko. Baino hori guztia, zure parte hartzerik gabe, ez da posible izango.

#NiEreCorrescalesNaiz oihukatuko dugu sindikatuak iristen ez diren esparruetara ere elkartasuna ailegatu dadin, prekarietatearen esparruetan borroka piztu daitezen, eta gure espazio konpartituetan, gorputzak elkartuz, elkartasuna haragitu dadin. Gure aurrekoek, aspaldi erakutsi ziguten bezala. •



Alex Mendizabal, musikari eta euskaltzale donostiar eromatarra. GAUR8

infraganti ALEX MENDIZABAL

Musikaria eta euskaltzalea bera, hiru hamarkada dira jada Alex Mendizabalek Eroman –eta ez Erroman– lur hartu zuenetik. Azken hamarkada honetan buru-belarri dihardu ACE-Eromako Euskal Etxean, euren «etxean». Hamaika ekimen garatu dituzte euskara eta euskal kultura sustatze aldera; azkenaldian, baina, zailtasun batzuk gehitu zaizkie.

Artikulua kontzeptu argiketa ezinbesteko batekin hasi beharrean gara gaurkoan. Eromara –eta ez Erromara– egingo dugu-eta salto datozen lerroetan. “R” bat galdu zuen hiria da Eroma, bertako hiritarrek “R” suabe batekin

ahoskatzen dutelako Italiako hiriburuaren izena. Kontzeptu argiketa hori Alex Mendizabalek (Donostia, 1961) egin digu, 1982. urteaz geroztik bertan den musikari eta euskaltzaleak.

Italiako hiriburua izateaz gain, beste gauza askoren hiriburu ere izan daiteke Eroma. Baina kostako zitzaion neurtzea



Roberta Gozzi eta Alex Mendizabal, ENE saria jasotzean. Tartean, Iñaki Dorronsoro. GAUR8

Mendizabali hiriak –eta herrialdeak– Euskal Herriarekin zuen harreman historikoa zenbaterainokoa izan zitekeen: «Iritsi bezain pronto, harrituta geratu nintzen Euskal Herriarekin zegoen harreman historikoaren garrantziaz eta sakontasunaz jabetzean. Mendeetan zehar hainbat jende ibili da Italiara joan-etorrian, eta alderantziz».

Aipatu harremana, gainera, eremu anitzetara hedatzen da: hasi Erromatar Inperioaren garaian azpiegituren arloan zabaldu zituzten jakintzetatik; jarraitu hizkuntzei dagokionez euskararen eta latinen arteko harremanarekin; edota artea, teologia, literatura edo filosofia bezalako jakintza arloetan eman diren trukeak aipa genitzake. «Gaur egunera etorrita ere, ikus dezakegu nola hainbat idazlek idatzi duten Italiaren inguruan, edota nola –Joseba Macias Egin Irratiko zuzendari izan zenak esan zidan bezala– 70eko eta 80ko hamarkadetan irratilibretako hainbat kide etorri zen hona, hemen hain zabaldua zegoen mugimendua eta erabiltzen zuten teknologia ikusi eta ikastera. Bestalde, nik egunero hartzen dudana metroa CAFen

egin dago», dio Mendizabalek. Adibide batzuk baino ez dira, baina Euskal Herriaren eta Italiaren artean historikoki emandako harremana islatzen dute.

ACE EZ, «ETXE»

Hala, 2002. urtean, eta Marlene Merikaetxebarriarekin bat, elkarte baten sorrera bultzatu zuen Mendizabalek. Emaiza: Associazione Culturale Euskara-Eromako Euskal Etxea. «Etorritzen zitzaigun eskaera andanari erantzuteko hartu genuen elkarre bat sortzeko erabakia. Euskal etxe bat izateko eskakizuna egin genuen, eta ontzat eman zuen Eusko Jaurlaritzak. Gaur egun, Viviana Tommasetti da lehen-dakaria, euskararen eta euskal kulturaren alde azken hamar urteotan horrenbeste lan egin duen emakumea», azaldu du.

Baina zergatik “etxe” eta ez “ACE”? «ACE, italieraz, ‘atxe’ bezala irakurtzen da. Hortik ateratzen dugu ‘etxe’-ren ideia. Egoitza sozialik gabeko euskal etxea da gurea, eta horrek behartu gaitu hasieratik egitasmoak leku ezberdinetan egin behar izatera. Horrek onura garbi bat dauka: gastu bat kentzen dugu gainetik eta jende multzo ezber-



Unibertsitateko Euskal Saila, LIBE argitaletxea, Euskanta proiektua... Hamaika dira garatu dituzten ekimenak, baina Etxepare Institutuaren aldetik jasotako laguntza hutsala izatera pasa da

zenbat ikasle dauden irakurleko bakoitzean. Euskal Sailari diru laguntza osoa kendu zitzaionean 153 ikasle zeuzkan». Egun, ROMA3 unibertsitateak garatzen du Euskal Saila, Etxepare Institutuaren inongo diru laguntzarik gabe.

Bestalde, LIBE *on line* argitaletxea sortu zuten 2011n, euskal literatura italieraz argitaratzen duen argitaletxea. «Dagoeneko sei liburu argitaratu ditu: Sarriandariaren bi eta Koldo Izagirre, Irati Jimenez, Mariasun Landa eta Xabier Erkiziaren bana. Lan guztiak Roberta Gozzik itzuli ditu. Azken bi urteotan LIBE ere ez du Etxepare Institutuaren partetik diru laguntzarik jaso», salatu du Mendizabalek.

Aipatu ekimenekin nahikoa ez eta Euskanta proiektuaren berri ere eman digu. Azken sei urteotan garatu duten proiektua da, Marcello Liberatorekin elkarla-

Etorkizunera begira, garrantzi berezia ematen dio Mendizabalek elkarlana sakontzeari: «Nik uste dut nazioartean euskararen alde aritzen direnen artean gutxi ematen den kontua dela»

nean. Eromako eskola publikoetan 9-10 urteko gaztetxoek kantutak egiten dituzte, euskaraz. Egingako lan guztiak www.euskanta.wordpress.com helbidean eskegi dituzte. Euskara-Italiera hiztegia ere argitaratu dute Interneten (www.euskara.it/hiztegia), «Gozziren urteetako lanari esker». Orain Italiera-Euskara hiztegia garatu nahian dabilta, «baina baliabideak falta zaizkigu».

EUSKO IKASKUNTZAREN ENE SARIA

Egingako lan guztia ez da urik gabeko putzuan erori eta Eusko Ikaskuntzak nolabait saritu nahi

izan du ACE-Eromako Euskal Etxearen jarduna. Hamarnaka lagunek osatzen dute berau, baina Euskal Saila edo LIBE argitaletxearen kasuetan, esaterako, askoz ere lan profesionalagoa garatu behar izaten dute. «Oso pozik eta eskertuta gaude. Era batera edo bestera ekarpena egiten dugun guztiontzat hats berria izan da saria», adierazi du Mendizabalek.

Aurrera begira, berriz, nazioartean euskararen alde aritzen diren talde ezberdinen arteko elkarlanean sakontzea gustatuko litzaioke: «Uste dut nazioartean euskararen alde aritzen diren taldeen artean oso gutxi ematen den kontu bat dela elkarlanarena». Ildo horretan, dio badela jarraitu ahal den elkarlan bide bat: HABEren Euskara Munduan programaren bidez proposatzen dena, adibidez. •

Aimar Etxeberria Korta

dinengana heltzea ahalbidetzen digu», azpimarratu du.

Estuki hartu dute euskararekiko konpromisoa eta horrek maila handiko ekimenak garatzera eramanez, betiere bestelako elkarteekin elkarlanean. Ekimen horietako bat da Unibertsitateko Euskal Saila, 2005ean Jaurlaritzaren Euskara Sustatze Idazkaritzaren laguntzarekin jaio zena. Horren bidez euskara eta euskal kultur eskolak, ikerketak proiektuak, itzulpenak, argitalpenak eta abar bideratu dituzte. «Euskal Sailak azken hamar urteotan egin duen lana luzea eta sakona da. Duela bi urte, ordea, unibertsitatez aldatu behar izan genuen, Etxepare Institutuak diru laguntza osoa kendu ziolako proiektuari. Harrigarria suertatzen zaigu Etxepare Institutuak ekimenarekin izandako jarrera; erakundearen gaineko hausnarketa sakon bat beharrezkoa dela iruditzen zait, urgentziaz gainera. Hausnarketa egiteaz gain gardentasuna exijitu behar zaio Etxepareri, ez baita ulergarria erakunde publiko bat izanik inork ez jakitea, adibidez,



ACE-Eromako Euskal Etxeko hainbat kide Maialen Lujanbio, Anari eta Xabier Erkiziarekin, 2012an, Txori Mugalariak emanaldia italieraz egin zutenean.

GAUR8



Maria Gonzalez Gorosarri - @albistetan
Kazetaria eta ikertzailea

Isilpeko heriotza zigorra

Gorka Fraile Iturralde euskal presoak espetxean 18 urte daramatza, dagoeneko existitzeari utzi dion erakunde armatu bateko kide izategatik, odolezko lege-hausterik egin ez arren. Guztira, 45 urteko espetxe zigorra du (25 urte bete beharko ditu), 1997an etakidea izan zelako. Oraintsu, 2015eko apirilean, minbizia zuela esan zioten, lau hilabete lehenago txarto diagnostikatutako zauri berean. Ekainean ebakuntza egin zioten:

• «*Ettxerat denuncia el trato 'inhumano' a Gorka Fraile en el hospital: Según Ettxerat, el preso ha estado 'esposado día y noche a la cama', y 'en contra del trato de calma y reposo previo a una operación'.*» (Eitb.com, 2015/06/10).

• «*El preso político Gorka Fraile es operado con éxito de un tumor de lengua tras un trato policial 'repugnante y cruel', valora Ettxerat*» (Mugalari.info, 2015/06/09).

• «*Denunciarán ante el Juzgado de Vigilancia Penitenciaria el trato dado al preso Gorka Fraile*» (Durangon.com, 2015/06/10).

Ordutik aurrera Fraile Iturraldek ez du ezelango tratamendurik izan:

• «*Gorka Fraile: 'Zazpi hilabete pasatu dira ebakuntza egin zidatenetik eta ez didate TAC misero bat ere egin'*» ("Anboto", 2016/01/13).

Hiltzeko zorian dagoen gaixo bati mediku-arretarik ez ematea isilpeko heriotza zigorra da; PPko buruzagien hizkeran, «*una pena de muerte en diferido*».

Espainiako Zigor Kodeak aurreikusiten dituen zigorrak ez datoz lege-haustearen larritasunarekin bat. Izan ere, Fraile Iturralderen lege-hausteak ETAren izenean egin izan ez balitu, espetxean 25 urte eman beharrean, isun ekonomiko bat ordaintzea litzateke bere zigorra (Espainiako Zigor Kodearen 263.1. artikulua). Zer lege-hauste gogorren zigortzen diren erabaki politikoa da.

Politikariek erabaki zuten euren interes ekonomikoen aurka atentatzea emakumeak hiltzea baino garrantzitsuagoa dela. Politikariek hobetsi zuten haiek hiltzea emakumeak hiltzea baino larriagoa dela, zenbakiak zenbaki. ETak 50 urtean 823 pertsona hil zituen (Fundación de Víctimas del Terrorismo berak emandako datua) eta Espainian bikotekideak hildako emakumeen kopurua azken hamabost urtean (2008tik gaur arte) 830ekoa izan da (Espainiako Berdintasunerako Ministerioaren arabera). Beraz, etxean bertako emakumeen aurkako erasoaldia ETarena baino hiru bider handiagoa da. Gainera, genero indarkeriak hil ez dituen emakumetzat jo izan dituzte, adibidez, Marta del Castillo (Sevilla), Laura del Hoyo (Cuenca), urtebeteko Alicia (Gasteiz) eta izen-abizen ezezaguneko emakume hilak (Malagan, urtarrilean, aurkitutako azkena).

Legearen arabera, emakumeon bizitza ez da politikarien interes ekonomikoen bestekoa. Hala ere, propagandarako erabiltzen gaituzte:

• «*Patxi López (PSOE) se estrena [como Presidente de la Mesa del Congreso] recordando a las víctimas del terrorismo y pide un pacto de Estado contra la violencia de género*» (Eldiario.es, 2016/01/13).

Emakumeak ez erasotzea Lopezen esku dago, baina. Are gehiago, 1995eko Zi-

gor Kodeaz geroztik sexu erasotzaile bakarria indultatu du Espainiako Gobernuak (Lopezen alderdikoak, hain zuzen): Paul Abasolo Amantegi, José Luis Rodríguez Zapateroren azken Ministroen Kontseiluan.

• «*Indultan al futbolista Paul Abasolo, condenado por abusos sexuales: La decisión evitará que vaya a prisión*» ("El Correo", 2012/01/21).

• «*El Gobierno español indulta a Abasolo: El jugador vizcaíno había sido condenado a tres años y tres meses de prisión por abusos sexuales. Paul Abasolo vuelve a sonreír*» ("Deia", 2012/01/21).

Abasolo hilzorian ez badago, zergatik ez dago espetxean, emakumeoi eraso egiten ez digun lekuan?

Paul Abasolo Amantegi eta Gorka Fraile Iturralde, biak durangarrak: lehengoa herriaren erdiarentzat arrisku-tsua da eta bigarrena existitzen ez den erakunde armatu bateko kide izan zen urtebetez. Abasolok hiru urte eta erdiko espetxe zigorra zuen, baina betetzetik askatu egin zuten, emakumeei eraso egitea arinagoa delako; interes ekonomikoei kalte materialak eragitea, orde, heriotza zigorrarekin zigortuko dute. Fraile Iturraldek espetxean oraindik beste zazpi urte emango ditu, betiere, bizirik mantentzen badute. •




Larriki gaixo dauden presoek aldeko ekimena, 2015eko irailean.

Jagoba MANTEROLA | ARGAZKI PRESS

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



HERMENEGILDO OTERO. FONDO IÑAKI AGIRRE FRANCO


HARRESIRIK GABEKO DONOSTIA, HAZTEN HASI ZEN HIRIA

Donostiako San Martin auzoa, 1870. urtea. Irudia garaiko epaitegien orubetik dago hartuta. Lehenengo planoan, Zapiainen etxea eta Sebastopol ostaturia; atzealdean, Kursaal (Londres) hotela, eraikuntza lanetan. Argazkia egun Manterola kalea izango litzatekeenetik dago eginda eta bere egilea Hermenegildo Otero (Donostia, 1841-1905) izan zen. Argazkigintzaren aitzindaria bera, Pescaderia kaleko 8. zenbakian zeukan estudioa. Bere jarduera profesionala, batez ere, 1864an hiriko harresiak erautsi ostean Donostiak bizi izan zuen garapena erretratatzeko garatu zuen. Era berean, ezagunak dira II. Gerra Karlistaren harira egin zituen argazkiak, baita Donostiako gotorlekuei egin zizkienak ere.

GAUR8 ireki gure leihoa



6 0 2 0 6



9